

Barrena



Labe bihurtu dira bazterrak ezohiko San Joan bezperan

40 gradutik gorako tenperaturak izan dira astean, eta beroagatiko alerta gorriak eragina izan du udako solstizioko ospakizunetan; Debabarreneko herri batzuetan San Joan surik ere ez dute piztu, eta piztu duten herrietan ohi baino txikiagoak izan dira / 2-3

Txindurri Dantza Taldeko kideak, San Joan bezpera egunez Ermuan egindako akelarrean, plaza bete lagunren aurrean. ANDER PROL

GIZARTEA

Toti Martinez de Lezea idazleak hasiko du aurten 'Marea gora' hitzaldi-zikloa

Interes sozial eta kultureko gaiei buruz arituko dira punta-puntako hizlariak Deban, uztailaren 1ean hasita / 4



Antolatzaileak, hitzaldi-sorta aurkezten. ALEX TURRILLAS

KIROLA

Nahaste Borraste herri triatloiaren 40. edizioa jokatu dute gaur Elgoibarren

Txirrindularitza, zaku-eramatea eta atletismoa batzen dituen proba historikoaz aritu dira historia egin duten parte-hartzaileak / 12-13



lazko probako argazki bat. ASIER ORBEA

BERTSOLARITZA

Unai Mendizabal Jauregi bertsolari zizurkildarrak irabazi du Txirristaka Bertsopaper Lehiaketa / 14



AINARA ARGOTIA

MUSIKA

Xabi Solanok, Sunek eta Debako Bandak kontzertua emango dute elkarrekin uztailaren 4an Deban, zumardiko karpan / 24



NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

PILOTA

Asier eta Iñaki pilota txapelketaren 25. urtemuga ospatuko dute bihar Sorluzen, herri bazkari baten bueltan / 22



Dantzariak Sorgin dantza egiten Plaza Barrixan. JON AGIRRE

Beroagatiko alerta gorriak San Joan bezperako ospakizunei ere eragin die Debabarrenean

40 graduren bueltako tenperaturak izan dira asteon, bero itogarria, txoriak adarretik botatzeko modukoa, eta ezohiko neurriak hartzera behartu ditu horrek udalak eta bestelako herri eragileak. Zerbitzuei ez ezik, ospakizunei ere eragin diete neurriok. Elgoibarren, Mendaron, Itziarren eta Mallabian, esaterako, San Joan surik ere ez dute piztu aurten, sute arriskuagatik

Ainara Argoitia DEBABARRENA

Bero sapa handiarekin hasi da uda; hainbestearainokoa izan da egunotako beroa, ezen Eusko Jaurlaritzak alerta gorria ere ezarri duen hiru egunetan. Eta, jakina, alerta egoera horrek eragina izan du egunerokoan,

bai eta ospakizun berezietan ere. Eibarren, San Joan jaietan harrapatu ditu bete-betean beroak, eta jai-egitarauko ekintza asko bertan behera laga behar izan dituzte edota ordutegiz aldatu bestela, eguneko ordu beroenak saihesteko. San Joan

bezpera egunez eskualdeko herri gehienetan egiten diren ospakizunei ere zuzen-zuzenean eragin die. Sute arrisku handiagatik, aurten, San Joan surik ez piztea erabaki dute, esaterako, Elgoibarren, Mendaron, Mallabian eta Itziarren, eta sua

egin duten beste herrietan ohi baino txikiagoa egin dute, arrazoi horrexegatik beragatik. Muiak urtu dituzte antolatzaileek behar baino arrisku handiagorik hartu gabe usadio zaharrari eusteko, eta gezurretako sua ere egin dute, estreinakoz, Menda-

roko akelarrean. Sorginak akelararrera nola, batu dira plazetara herritarrek dantzara, eta irrintzi, salto eta konjuruak egin dituzte bazterretan, txar guztiak uxatzeko. Balioko al dute, bide batez, egunotako lamara hau aldiz batez arintzeko!



Umeak suaren bueltan dantzan, Sorgin dantza eginez. JON AGIRRE



Mutiko bat makila eskuetan, sua atzean duela. JON AGIRRE



Mutikoa suaren gainetik saltoka. J. A.



Debarrak, jai giroan murgilduta. NEREA BEDIAUNETA ALKORTA



Ikusleak eta dantzariak, Deban sua piztu aurreko uneetan. N.B.A.



Urtero legez, suak jendetza erakarri zuen Foruen plazara. N.B.A.



Mendaroko akelarreko akerra. A.ARGOTIA




Mendaroko akelarrean parte hartu zutenak, plazan, ekitaldi bukaeran. AINARA ARGOTIA



Mendaroko sorgin txikiak, akelarrean. ION URBIETA



Mendaroko akelarrean antolatzaileak eta zenbait dantzari. ION URBIETA




Deabrua Ermuko frontoi gainean. E.J.C.



Txindurri Dantza Taldearen erakustaldia, Ermuko akelarrean. P.E.



Zuziri eta bengala artean piztu zuten Ermuko sua. PEDRO ELIZONDO



Gauerdian, zezen-suzkoa atera zen Ermuko plazara. EMILIO JOSE CARRAL

Bailarako herritar guztiei zuzendutako 'Marea gora' hitzaldi-sorta hartuko du Debak

Toti Martinez de Lezearen solasaldiarekin hasiko da egitaraua, uztailaren 1ean

Izaro Aulestiarte DEBA

Debabarreneko Ikasten Esperientzia Eskolaren hemezortzigarren promozioko ikasleen ekimenez, *Marea gora* hitzaldi-sorta egingo dute uztailaren laugarrenez, Deban. Joan den ostiralean, ekainaren 19an, aurkeztu zuten egitaraua, Kultur Elkartearen egindako agerraldian. Antolatzaileek aurreratu zuten, aurtengo eskaintza lau solasaldik osatuko dute –hiru gaztelaniaz eta bat euskaraz–; datozen lau asteazkenetan egingo dituzte hitzorduak, 19:00etan, Kultur Elkartearen bertan, eta sarrera libre da. Aretoaren kanpoaldean pantailak jarriko dituzte hitzaldiak kanpotik ikusi ahal izateko.

Aurreko hiru urteetako arrakasta ikusita, egitasmoaren laugarren aldi honetan ere ibilbide pertsonal eta profesional



Antolatzaileak, joan den ostiralean Kultur Elkartearen egindako agerraldian. A.T.

askotariko "punta-puntako hizlariak" izango dira protagonista, eta interes sozial eta kulturalerako gaiei buruz ariko dira agertokian. Nolanahi ere, sustatzaileek gogorarazi dutenez, hasierako balioei eta helburuei eusten

die *Marea gora*-k. "Batetik, ekimenak Debako udako kultur eskaintza aberastea du helburu; eta, bestetik, ezagutza partekatua, pentsamendu kritikoa eta elkarrizketa soziala sustatu nahi dugu", azaldu dute.

55 urtetik gorako herritarrei zuzendutako Debabarreneko Esperientzia Eskolaren hitzaldi-zikloak Debako Udalaren eta Kultur Elkartearen babesarekin nabarmendu zuten.

Gonbidatuak eta hizketagaiak

Datorren asteazkenean, uztailaren 1ean, egingo da nagusiki udalerriko helduei, udako bisitariari eta Debabarreneko herritarrei zuzendutako aurtengo lehenengo hitzaldia. Toti Martinez de Lezea idazle entzutetsua izango da gonbidatua, eta *Brujas y brujerías, todo mentira (Sorginak eta sorginkeriak, dena gezurra)* izenburupean ariko da.

Astebete geroago, hilaren 8an, Juan Hernandez Zubizarreta EHuko irakasle, Latinoamerikako Multinazionalen Behatzen kide eta Herrien Auzitegi Iraunkorreko laguntzailearen txanda izango da; *El nuevo orden mundial y los derechos humanos: entre el caos y la resistencia (Munduko ordena berria eta giza eskubideak; kaosaren eta erresistentziaren artean)* hitzaldia egingo du.

Marea gora-ren egitarauak itsasoan jarriko du arreta aur-

tengo azken bi solasaldietan, baina oso bestelakoak izango dira gonbidatuek hizketagai izango dituzten esparruak eta gogoeta-gaiak.

Izan ere, batetik, uztailaren 15ean, Xabier Alberdi Lonbide itsas historialari eta Euskal Itsas Museoko zuzendariak *Euskal itsasontzigintza eta itsas historia XVI. eta XVII. mendetan* izenburuko berbaldia egingo du; eta, bestetik, uztailaren 22an, aurtengo programazioa ixteko, Oihane Cabezas Basurko AZTIko Arrantza Teknologia Jasangarrien arloko ikertzaile seniorrak *Lo que el mar esconde y nos devuelve: microplásticos y basuras marinas en nuestros ríos y playas (Itsasoak ezkututzen eta itzultzen diguna: mikroplastikoak eta itsasoko zaborrak gure ibai eta hondartzetan)* hitzaldia egingo du.

Lau hitzorduak Kultur Elkartearen egingo dituzte, asteazkenetan, 19:00etan



GABILONDO
INMOBILIARIA Y URBANISMO

ZURE ETXE BERRIA ZAIN DUZU

Gertutasuna,
esperientzia eta
konfiantza



ELGOIBAR

Errosario kalea

1 logela 1 bainu Igogailua

150.000 €



ELGOIBAR

Sallobente (Ermuaran bailara)

5 logela 2 bainu Hegoaldea

300.000 €



ELGOIBAR

Iniguez de Karkizao kalea

3 logela 2 bainu Eraikuntza 2011

279.000 €



HONDARRIBIA

Jaizubia auzoa

4 logela 4 bainu Jardina

1.050.000 €



ETXEBIZITZA GEHIAGO GURE WEBGUNEAN



www.inmobiliariagabilondo.es



943 74 44 67



San Frantzisko Kalea 51, behea
20870 Elgoibar



Zerbitzuen gida

- ▶ **24 € Hilean** 24 euroren truke, hileroko zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARRENA astekarian!
- ▶ **Erakusleihoa** BARRENA astekaria Debabarreneko erakusleihoko ikusienetakoa da.
- ▶ **10.500 ale astero** 10.500 ale banatzen ditugu Debabarrenean zehar DOANI!

ARROZTEGIAK

DEKORAZIOA

ERABERRITZEAK

Jarri zure
publizitatea

MEKANIKARIAK

BIENA S.L.
ARROZTEGIA
Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

KM design
Kira Marrazteak
943 76 99 85
www.kmdesign.es

GOKI erreformak
FATXADA BIRGAITZEAK
ETA ERREFORMAK
ELGOIBAR 943 74 42 23 SORALUZE 943 12 57 41

ITURGINTZA

SORALUZE MOTOR
Mendiola ind. 13 Soraluze
676 554 817 - 943 75 21 38

MAR
ARROZTEGIA
Olaso Industriegunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteria@mar@hotmail.com

ELEKTRIZITATEA

IGELTSEROTZA

SANTANA
Igor Santano
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 711 905
santana@iturgintza@gmail.com

PINTURAK

iraolagoitia
aroztegia - altzarioak - etxe-aldaketak
Kurutze-gain Industriegunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

laibi 25 urte
Mendiola Industrialdea 13
Soraluze
Tel. 943 75 12 69
www.laibi.net

IZKURRIRE
Igeltserotza
Erakin berriak - Kalitateko emaitza
Erreformatik - Era guztietako igeltsaritza
50 urteko esperientzia - 610 638 913

LEIHOAK

BIOK
dekorazioa
Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

Jarri zure
publizitatea

Elektrizitatea Iturgintza
Igeltseritza Pintura
EXGA S.L.
679 623 594 Soraluze

Jarri zure
publizitatea

ODRI
ASTEAK ETA LEIHOAK
Aluminio eta PVC aroztegia
662 234 609
odri@lehoak@gmail.com
Sagar Erreka Kalea 2, 20590 SORALUZE
Mota guztietako leihoak, sementak eta konponketak.
Atsek, leihoak, pertsonak, barandak, etxe-sareak
eta tokiak partez ditugu.

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA
Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

Zerbitzuen gidan agertu nahi izanez gero, deitu edo
Whatsappera idatzi telefono zenbaki honetara:
688 76 96 57

NIRE USTEZ

Gutizia iluna



NAGORE DORRONSORO

Egunero erantzten dizut zilarrezko jantzia, bitan, zaren urrea emeki dastatzeko.

Hainbeste zor dizu nire pozak, eta gaur ohikoa baino denbora gehiago eskaini nahi dizut. Beraz, beldurrak gaintitu eta barne-hiztegian kontsultatu zaitut:

Txokolatea: albo kalterik gabeko pilula magikoa.

- Historian: Zaragozako harrizko monasterioan harrizko laga gintuzten; hango mojek gehitu omen zioten azukrea Ameriketatik zetorren fruitu mikatzari. "Biba mojak! Zuek bai Jainkoaren zerbitzari leialak!".

- Koloretan: esnez gainezka, gozo-gozoa maite bainuen nik orduan, hogeita bost urterekin, txokolatea, xuabe. Aldatu dira, ordea, garaia, eta nigan zerbaite ere bai, antza... Mikatz eta intentso maite dut orain, autentiko. Beharbada, horrexek erakartzen nauelako orain inguruan ere: hornidura ponposoetatik libre, barne-

mikatzak, ezkutuko ahuldadeak, erakusten dituzten pertsonak. Jende ausarta, autentikoa; txokolate beltzeko jendea.

- Temperatura eta testuran: hotza, garrantz guztiek desio duten andregai kukuruxo-uztaian; beroa, galdetu arimari, hark bakarrik daki!; urtua, postreen luxuzko berokia; gogorra, hau zure omenez!

- Afroditarren eskutik: "Etxera bazatoz txokolatia emangoizut!", bota zion. Eta etorri zen, baina ez zuten behar izan. Ez elkarrekin.

- Aktualitate edo politikan: Israelek txokolate artifiziala sortu omen du, laborategian. Probarazi dio jende andanari, eta ezin omen dute naturatik datorrenetik bereizi. Dirutza inbertitu dute, gerora dirutza hori bueltan biderkatzeko asmotan, lan-esku piloa *aurrezten* omen delako. Israel/dirua ekuazioan, Muguruza jaunak zioen moduan, *jada ez nau ezerk harritzen!* Neure buru kuriosoak segituan galdetu dit, ordea, ea emango lidakeen armairuan mimoz gordetzen dudanak ematen didana. Deskuiduan lehendik dauzkadanak kendu!

Zuri, bada, hau, nire gutizia ilun hori. Baina, bide batez, nola ez, baita eguneroko txikia handi egiten didazuen beste bizigabe eta bizidunoi ere! Eta azkenik, Deban izan genuen Iurgi Ekizak kantatzen dienei, hitzek justiziaz jaso ezin dituzten naturako bizipen *arrunt*-ei.

Den-denei, agur eta ohore!

GUTUNAK

Ezinbestekoak Ostolaza saria

JOSEBA ESCUDERO DEBA
ZUHATZA EUSKALTZALEEN
MUGIMENDUAREN IZENEAN

Lehenik eta behin, mila esker Kultur Elkarteari, eta, nola ez, aukeratu gaituzten herritar anonimoei, sari hau Zuhatza euskara elkarteari emateagatik. Oholtza gainera azken urteetako eta berriki aukeratutako zuzendaritzako ordezkariak igo bagara ere, sari kolektiboa da hau, zuhatzakide guztien saria: azken 30 urte hauetan talde eragilean izan, ekimenetan lagundu, edo eta bazkide diren guztien saria. Bakoitzak bere hazia erein du.

Ez dago hobeto aukeraterik: Ezinbestekoak. Gure berezko hizkuntza nazionalak, ofiziala izanagatik ere gurean, ezinbestekoa duelako euskaltzaleak aktibatu, elkartu eta antolatzea. Azken datuak eta ikerketa soziolinguistikoko hor daude. Larrialdi linguistikoan dago euskara, eta pizkunde berri baten beharrean. Debako Udalaren azken datuek erakusten duten bezala, gure herrian, adibidez, umeen eta gazteen arteko euskararen erabilpena jaisten doa. Eta ez da euren errua.

Horrez gainera, Zuhatza euskaltzaleen mugimendua biziberritzen ari den unean etorri da saria. Eta aitortza honek energia berria eta indarra ematen digu ahaleginean aurrera egiteko. Espero dezagun bultzada honek euskaltzaleak Zuhatzara biltzeko pizgarria izateko. Euskaldun bakoitza bere sentimendutik, bere motibaziotik, bere zaletasunetik

lekua izango baitu antolaketa berrian, euskarak ezinbestekoa duen normalizaziorantz jauzia egin dezan. Politika publikoak herritar aktibo eta antolatua beharrezko duelako.

Amaitzeko, Ezinbestekoak saria jasotzeko egun aproposa da Zuhatzarentzat gaurkoa -joan zen larunbat azken ari da, ordurako idatzia baitzuen-. Gaur elkartuko baitira Iruñean Euskal Herriko euskaltzaleak Euskaltzaleen Martxan, euskaraz bizitzeko baldintzak eskatzeko, euskaraz bizitzeko behar den dena aldarrikatzeke. Euskaltzaleak gogoan, eskerrik asko.

Kanpaien eta herriko ahotsak isilarazten ari direnei

ALEX ZABALETA SORALUZE

Jaiotzetik hil arte, auskalo zenbat plazentziatar gizaldik entzun ote dituzten gauero kanpandorreko tin-tinak. XIX. mendetik ei daude entzungai erlojuaren doinutxo zerutiarrok.

Begirakun izpirik, goraiatze erdirik, ezta aldeko ipuin-labur lehiaketaxorik gabe, aginte-jendeak amatu egin ditu gauzez. Baita isildu ere, 500 herritarren -ez eliztarren- ahotsak. Itsusi, esker gaiztoz, ez batari ez besteari inongo herri onurarik onartu gabe, ito eta kitto.

Hanka-jokoan armiarma galanta oheburuan dagoela ikusi, begiak itxi aharrasika, eta lo saka-saka egiten duten batzuk badaude. Bejondeizuela. Kanpaien kontrako kexa sartu duenak zuzen jokatu du, jakina baietz, baina kexa jaso duenak?

Morokilak darama: elizan baimenik gabe sartu eta milaka

eurotako gastua sortu; Espainia guztiko telebista-kate narrasak iraintzera ekarri; komeni ez dena, ez neurtu, ez aztertu; Arartekoari nahi duenean bakarrik kasu egin; herritarren parte-hartze-mintzakiderik ez bilatu, ez aldarrikatatu; baliabideak erakunde-indarkeriazko prozesu juridiko alderdikoietara besterik ez bideratu; 500 herritarren eskaria ibaira jaurti, erantzun, ardura, ordezkapen, modu txukun, justu, arrazoiz ganorazko gardenik gabe...

Aukerakoa izan da, elkar-moldatze kontziliotxo jantzi baten, aditu, aitzaki, txosten, neurketa, balizko epaile, dekretu, helegite dirutsu, etab. dantzan elkarri igurtzika ipintzea. Izan ere, elizako aldaretik bertatik entzun genituen alkate jaunaren aldeko lora eder eta mihazkadak. Txaloak falta, urtean zehar txarraskan eskainitako umeentzako Gabon-kanten letra aldaketa, San Martzialgo martirienganako burla eta holakotxe gogo-jardunei. Eskerrak.

Kanpaien auzian, alkate jaunak 500 herritarrek -izen-abizen eta guzti- eskatutakoa ere hartu beharko luke aintzakotzat, eta ez bakarrik abade jaunak esandakoa. Honek atal hori eskuratu eta zorrotz erabiltzerik nahi izan ez duelako. Topo egin ezean, biori hemendik: bizkarrik eman gabe, dagokionak ahots hori ere ganoraz jaso arte, mesedez, laga itzazue herriko kanpaiak bakean. Apaiz jauna, arren jakin dezala berorrek, oso aurki izan daitekeen nire hiletan, ez dudala biderako behar nik halako lorarik. Eta alkate jauna, faborez, niregana boto eske alferrik ez azaldu.

Barrena[®]

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea

Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria

Gaizka Azkarate.

Zuzendari nagusia

Egoitz Unamuno.

Eduki arduraduna

Ainara Argoitia.

Erredakzio batzardea

Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Izaro
Aulestiarte.

Kazetariak

Ainara Argoitia, Ainhoa
Andonegi, Alex Turrillas, Ander
Gomez, Asier Orbea, Egoitz
Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.

Diseinu arduraduna

Oier Larreategi.

Zuzentzailea

Sergio Azkarate.

Kidetza eta banaketa

Alex Turrillas.

Maketazioa

Zaloa Arnaiz, Oier Larreategi.

Publizitatea

Leire Rubio.

HARPIDETZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA

Deba 20820
Ifar Kalea 12, behe
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA

Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZEKO EGOITZA

Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025

ISSN: 3101-2647

Tirada: 10.500 ale

Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzeko Udala



'Txipi Txapa' proposamena izan da aukera bozkatuena Usetxe eremua berritzeko

Ainhoa Andonegi

Udalak zehaztu duenez, 665 herritarrek parte hartu dute Usetxe parkea berritzeko ideia aukeratzeko herri bozketan, eta *Txipi Txapa* izeneko proiektuak jaso du boto gehien. Guztira 280 boto jaso ditu. Beste bi proiektuek antzerako boto kopurua eskuratu dute: 164 boto *Kutxa bat, aukera anitz* izeneko diseinuak eta 160, berriz, *Debabegira* izenekoak. Baliogabeko boto dezentente zenbatu dituzte; hain justu ere, 61.

Ibilbide zabala

Tabuenca & Leache Arquitectos estudioak aurkeztu zuen *Txipi Txapa* proiektua, eta, hala, Usetxe eremuko etorkizuneko kultur ekipamendua eraikiko du hark. Udalak azaldu duenez, helburua da eremu urbano hori berreskuratzea eta hari balioa ematea, plaza Deba ibairantz irekitzea, dau-

den aparkalekuak ordenatzea eta herriko kultur elkarte eta jarduerentzat ekipamendu eguneratua sortzea, Pedro Mugurutzako ikastetxe zaharreko lokalen azken erabile-rari jarraipena emateko. Tabuenca & Leache Arquitectos estudioak espazio publikoen

eta kultur ekipamenduen arloan badu esperientzia, eta haren lanen artean daude, besteak beste, Iruñeko Kondestablearen Jauregia birgaitzea, Salesas komentu zaharra eraldatzea eta Gasteizko hirigune historikoko irisgarritasuna.



Proiektu irabazlearen irudia. LAGATAKOA

Harrotasunaren Egunaren bueltan hainbat ekitaldi izango dira asteburuan

A.A.

Elgoibarko "trans, marika, bollera, bi eta ez-binarioen sare eta topagune" izateko sortu zuten Arrain Zopa taldeak Harrotasunaren Eguna ospatzeko egitaraua antolatu du astebururako. Bihar izango dira ekintza gehienak: 18:00etan, pankartak egiteko elkartuko dira, gaztetxean; 19:30ean, Kui-

ropoteoa izango da, Kultur Kafetik hasita; eta 21:30ean, mokadutxo kuirra egingo dute, gaztetxean. Ondoren, jolasak, musika eta karaokea izango dira -atreztoa eskuragarri egongo da-. Domekarako, bestalde, LGTBIK+ kolektiboaren aldeko elkarretaratzea deitu dute. 13:00etan izango da, Maa-lako parkean.

Ekainaren 28an ospatzen da LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna, 1970. urteaz geroztik. Geroago, 2004an, maiatzaren 17a Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna izendatu zuten, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik kendu baitzuen 1990eko maiatzaren 17an.

Ohorezko matrikuladun zazpi ikasle



BHI INSTITUTUA

IES Elgoibar BHI ikastetxeak jakinarazi duenez, batxilergoan zazpi ikasle lortu dute ohorezko matrikula 2025-2026ko ikasturtean. Honako hauek dira ikasle matrikuladunak: Malen Ugalde Alberdi, Naroa Ansola Ansotegi, Arahane Villanueva Sanz, Irati Majoral Esnaola, Sara Amasorrain Totorica, Ainara Txurruka Peruarena eta David-Cornel Schiau.

Amaitu dira Altzolako jaiak



MIKEL ASKASIBAR

Alarma gorriagatik ezin izan zuten San Joan bezperan surik piztu, eta sardina jatea ere bertan behera laga behar izan zuten. Baina, hala eta guztiz ere, giro onean joan dira jaiak Altzolan. Joan den asteburuan hasi zituzten ekitaldiak, eta, umeentzako ekintzez gain, musika eta herri bazkaria izan zituzten. San Joan Egunez bukatu ziren festak.

Barrena
GEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

943 743 704
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea **BARRENA** astekarian edo www.barrena.eus webgunean

Jon Aranao
Guillermo Torres

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostiralera:
11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak 11:00 - 13:00

Elgoibar Albaitaritza

Ispepindagi zerbiltzuz daukagu. Deitu ordea hartuko.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 986 162

EXPRESS ESKAINTZAK!

COMBI HAIER HTR3620ANP NF

899 € **A++ C**

- Ez-frost guztira
- 205 zm-ko altuera
- 3 ate
- Fresh 0° zone
- Sarbide zuzeneko tiraderak
- Altzairu erdoilgaitza Ilundua
- Mutiflow zutabea

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487
bi@milarbire.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



Ospakizunera batu ziren lagunak. ASIER ORBEA

'Tertuliak' egitasmoaren 25. urteurrena ospatu dute, parte-hartzaileekin eta eragileekin

'Tertuliak' programak Elgoibar herri euskaldunagoa izateko egin duen ahaleginari balioa eman zioten, batetik; eta, bestetik, programa horretan parte hartu dutenei eskerrak eman zizkieten eragileek, 25 urteotan egin dutenagatik. Ekitaldiko argazkiak eta bideoa 'barrena.eus/elgoibar' atarian daude ikusgai eta entzungai

Ainhoa Andonegi

2001ean jarri zuten martxan *Tertuliak* programa Elgoibarko Izarrak, Udalak eta herriko bi euskaltegiak: AEK-k eta Udal Euskaltegiak. Helburua argia zen: euskaraz jarduteko erraztasunik edo aukerarik ez zutenei euskaraz berba egiteko eta euskara entzuteko aukera eskaintzea. Hala ekin zioten 2001ean, eta dagoeneko 25 urte

bete ditu. Mende laurden hori ospatu beharra dagoela erabaki dute arduradunek, eta hala xe egin dute.

Ekainaren 18an egin zuten ospakizuna, Aita Agirre kultur-gunean, eta 70 bat lagun bildu ziren. *Tertuliak* programaren gainean eragileek sortu duten bideoa ikusi zuten hasieran. Bideoan, *Tertuliak* programa zer den azaltzen dute, eta tertu-

liakideen iritziak eta emozioak ere jaso dituzte bertan. Nahi duenak ikusgai dauka, barrena.eus/elgoibar atarian.

Ondoren, bi tertuliakidek hartu zuten hitza, Josean Gomezek eta Rebeca Estebanek; *Tertuliak* programak zer eman dien azaldu zuten haiek, eta beste bik bertotan jardun zuten: Virginia Barriadak eta Karlos Marcosek, hain zuzen ere.

Kantua lagun

Opari-banaketa egin zuten horren ostean. Hain zuzen, *Tertuliak* programaren eragileek – Elgoibarko Izarra, Elgoibarko Udala, AEK euskaltegia eta Udal Euskaltegia – erregalu bana eman zieten ospakizunean bildutako tertuliakideei, esker ona adierazteko.

Amiaieran, ospakizunaren alde ludikoari egin zioten lekua,

eta kantuan jardun zuten tertuliakideek, herriko lau musikariren laguntzarekin: Aitor Asenjo, Danel Legorburu, Maialen Etxeberria eta Ainhitze Beristain.

Talde-argazkiak atera, eta jan-edanak lagun zituztela sortu zen lagun-giroarekin amaitu zen ekitaldia, 25 urteko ibilbideak ematen zuen poza aurpegiari zutela.

"Euskara ikasten ari diren guztiei gomendatuko nieke programan izena emateko"



REBECA ESTEBAN
BIDELARIA-BIDELAGUNA

Zarauzkoa naiz, eta uste dut 2006an etorri nintzela Elgoibarrera bizitzera. Handik gutxira, langabezian geratu nintzen, krisiaren ondorioz, eta urte hartan bertan euskaltegian izena ematea erabaki nuen, EGA atera nahi nuelako. Gaztetan ez nuen nahi izan, baina gerora erabaki nuen titulua atera nahi nuela. 2011. urtea zela uste dut. Euskaltegian hasi nintzenez ikusi nuen *Tertuliak* egitasmoari buruzko informazioa, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Ane Goikoetxearekin hasi nintzen, eta oso eskertuta nago. Hark bazeukan ordurako beste

talde bat, baina nirekin egoteko tartea ere hartzen zuen. Beti ekartzen zituen gaiak prestatuta, eta oso gustura egoten nintzen harekin. Nik, bestela, ez neukan euskaraz hitz egiteko ingururik. Euskaltegian egiten genuen euskaraz, baina handik kanpora, ez. Gure etxeko hizkuntza gaztelania izan da, institutuan eta unibertsitatean ikasketak gaztelaniaz egin nituen, eta urte askoan euskararekin erabat deskonektatuta egon nintzen. *Tertuliak* egitasmoak asko lagundu zidan euskararekin harremana berreskuratzen. Umetan egiten nuen euskaraz, baina gero, galdu egin nuen. Neure burua euskaldun berritza daukat. Egia da euskaltegian hasi nintzenez etorri zitzaidala barruan neukan teoria guztia eta nahiko ondo aritu nintzela. Azterketa gainditu nuen, titulua atera nuen, baina, hala ere, tertulietan jarraitzea erabaki nuen. Anek bere taldera

gonbidatu ninduen, eta haiekin biltzen hasi nintzen. Goizetan elkartzen ginen, eta denetarikoa gaiak lantzen genituen. Anek oso ondo prestatzen zituen saioak, oso ona zen horretan.

Azken urteotan, beste aldean nago; bidelaguna naiz orain. Elgoibarko Izarrak proposatu zidan talde baten ardura hartzeko, eta hasieran erreparoa eman zidan, baina bidelagunak behar zituen egitasmoak, bestela talderen bat kolokan egon zitekeen; beraz, baiezkoa eman nuen. Eta ez naiz damutzen; oso pozik nago. Talde oso jatorra daukagu, oso ondo konpontzen gara, eta dagoeneko esan dezaket lagunak garela. Astean behin geratzen hasi ginen arren, orain plan gehiago ere egiten ditugu, eta Herriko Antzokira sarri joaten gara euskarazko antzerki emanaldietara. Euskaraz hitz egiteko aukeraz gain, lagunak ere eman dizkit

programak, eta ni taldekide bat gehiago naiz. Nire ustez, txapeldunak dira nire taldekoak, euskararekiko jarrera oso ona daukate eta pila bat ahalegintzen dira euskaraz egiten.

Euskara praktikatu nahi duten guztiei gomendatuko nieke programan izena emateko. Jende askorentzat hau da euskaraz hitz egiteko gune bakarra, eta tertuliakideek izugarri eskertzen dute hori. Nik esaten diet dendetan ere saiatzeko euskaraz egiten, baina horrek, agian, lotsa

"Ane Goikoetxearekin hasi nintzen programan parte hartzen, eta oso eskertuta nago"

handiagoo ematen die. Tertulietan oso lasai hitz egiten dute euskaraz, beldurrik gabe. Nik ez diet zuzentzen; azken batean, helburua komunikatzea da, nahiz eta dena zuzen ez esan. Ni ere alde horretan egondakoa naiz, oso ondo ulertzen ditut taldekideak.

Tertuliak programa oso-oso interesgarria iruditzen zait. Oso programa xumea da, baina asko ematen du. Niri, behintzat, pila bat eman dit. Tertulietan hasi nintzenetik, nire lehenengo hitza euskaraz egiten dut beti. Semearekin dena euskaraz egiten dut, eta hori niretzat oso garrantzitsua da. Badaukat baita ere lagun bat euskalduna dena, baina nik gaztelaniaz ezagutu nuen, eta, kosta zaigun arren, aldatu egin dugu ohitura, eta orain euskaraz egiten dugu. Hori sekulakoa izan da niretzat. Adiskidetasun sakona daukagu, eta lortu dugu gai serioei buruz ere euskaraz hitz egitea.

"Hizkuntza bat ikasteko modurik onena hizkuntza hori praktikatzea da"



JOSEAN GOMEZ
BIDELARIA-BIDELAGUNA

Hasieratik eman nuen izena programan, sortu eta berehala. Euskaltegian nenbela izan nuen programa horren berri, orduantxe ari ziren martxan jartzen, eta ez nuen zalantzarik izan. Izena eman nuen, konturatzen nintzelako euskaltegian egiten genuena han geratzen zela. Euskaltegitik irteteaz bat, berriz gaztelaniaz egiten nuen guztia. 25 urte egin ditu programak, eta nik ere beste horrenbeste egin ditut hemen. Niretzako, sekulakoa izan da programa hori, guztiz gomendagarria euskara ikasi nahi duen edonorentzat.

Ni Pilar ikastetxean ibilitakoa naiz, eta han euskara ikasgai bat besterik ez zen guretzat, eta institutuan ere gauza bera. Garai hartan bereizita geunden: ikastolakoak, alde batetik, eta erdaldunak, bestetik. Horrela zegoen egoera. 34 bat urterekin eman nuen izena euskaltegian. Konturatzen nintzen euskaraz hitz egiten zuen jendeari ez niola ezer ulertzen, eta egoera hari buelta eman nahi nion. Egia da oso ondo joan zitzaidala ikaste prozesua, eta bi urtean lau kurtso egin nituen. Hirugarren profila atera nuen, EGAREN parekidea dena, eta oso pozik nago. Gaur egun, lanean txosten pila bat idazten ditut euskaraz ere: aktak, pleguak... eta apenas itzultzailek gabe! Bilerak euskaraz egiten ditugu eta laneko hizkuntza nagusia euskara da. Gaur egun, euskaraz bizitzeko gai naiz. Nire bilobarekin euskaraz hitz egiten dut, eta hori sekulakoa da niretzat.

Tertuliak programak pila bat lagundu dit, eta, horri esker, pertsona batzuekin euskarazko harremana daukat. Ohiturak aldatzea oso zaila da, eta are zailagoa guretzat. Gurasoak kanpokoak dira, dena gaztelaniaz ikasi dugu... Zorionez, nire seme-alabak beste egoera baten hazi dira, eta haiek egiten dute euskaraz. Baina niretzako ikasgai bat zen, eta beti *izan* eta *ukan* aditzak ikasten jarduten genuen. Oso maila baxua irakasten ziguten eskolan, eta handik kanpora dena egiten genuen gaztelaniaz. Bidelari hasi nintzen, eta, denborarekin, bidelagun izatera pasatzeko aukera eman zidaten. Nire lana taldea koordinatzea da, batez ere; bestela, taldekide bat gehiago naiz. Lagun talde polita osatu dugu, eta astean behineko hitzordu moduan hasi genuena gaur erabat aldatuta daukagu, eta sarri geratzen gara. Elkartera joaten gara afaltzera, mendira,

jubilazioak ospatzen ditugu, Realaren partidak ikustera joaten gara... Hamar bat urtez talde bera daukagu, eta dagoeneko familia bat gara. Jende berria ezagutzeko aukera ere eman dit programak, eta harreman oso ona egin dugu.

Euskaltegietan dabilten ikasle guztiei gomendatzen diet izena emateko. Hasieran, batzuei lotsa ematen zien euskaraz hitz egitea, baina oso giro jatorra dago taldeetan, eta, denborarekin, jendeak konfiantza giroan hitz egiten du. Hanka sartzeak ez du inporta. Garrantzitsuena

"Jende berria ezagutzeko aukera ere eman dit programak, eta harreman oso ona egin dugu"

komunikatzeko gai izatea da. Nik beti esaten diet hitzak haizeak eramaten dituela, eta ez kezkatzeko. Jendeak uste duena baino askoz gehiago daki, baina lotsagatik ez du euskara erabiltzen askotan. Niri satisfazio handia ematen dit nire taldekideak euskaraz entzuteak, eta batzuen eboluzioa sekulakoa izan da.

Hizkuntza bat ikasteko modurik onena hizkuntza hori praktikatzea da; hizkuntza erabili egin behar da. Programa hori izugarria da; niri asko eman dit. Orain, lagatzeko asmoa daukat, eta taldeko Jose Felix Telleriak jardun du aurtengo ikasturtean bidelagun rolean. Ni ez naiz urrutira joango, eta edozertan laguntzeko prest egongo naiz, baina atzetik datorren jendeari ere lekua egin behar zaio. Hemen inguruan ibiliko naiz, eta tarteka geratuko gara planak egiteko, esan dudan moduan, orain lagunak garelako.

NIRE USTEZ

Segurtasunaren izenean errepresioa legitimatuz

GORANE AYESTA MAIDAGAN
DEBA BAILARAKO
KONTSEILU
SOZIALISTAKO KIDEA

"Segurtasunaren izenean" ia edozer justifikatua dagoela dirudi, baita munduari buelta eman dion Global Sumud Flotillako Loiuko harrerako gertakaria ere. Beste behin, logika bera erreproduzitzen ari ote da? Batzueganako indarkeria eta gehiegikeriak; besteen ekintzekiko justifikazioa eta inpunitatea. Bitartean, "ordena publikoa bermatzeko" neurri gisa aurkezten digute errepresioa. Baina noren segurtasunaz ari dira?

Bistakoa da segurtasunaren diskurtsoa ez dela beti herritarren eskubideak babesteko erabiltzen. Maiz, desadostasun politikoa kontrolatzeko tresna bihurtzen da: herri mugimenduak deslegitimatzeko, gobernuaren irudia zalantzan jartzen duten ahotsak zigortzeko... Ohiko kontakizuna errepikatzen da: tentsioa zegoen, arriskua zegoen, esku hartu behar zen.

Horrela normalizatzen dira karga polizialak eta indarkeria instituzionala, eta pixkanaka murrizten dira herritarren eskubide zibil eta politikoak: protesta eskubidea, adierazpen askatasuna, kolektiboetan antolatzekeo eskubidea, polizia

gehiegikerien aurreko babes...

Horregatik, Zupiria Segurtasun sailburuak esandako "hau da uda honetan datorriguna. Eta zein da aitzakia?" bezalako atean herri mugimenduarekiko kriminalizazio kanpaina bat dagoela uste dugu, batetik, Loiun gertatutakoaren ostean foku mediatikoa alboratzeko, eta, bestetik, aurrerantzean etor daitezkeen jarrera eta ekintza errepresiboak justifikatzeko.

Beraz, helburua ez da herriaren segurtasuna bermatzea, disidentzia seinalatzea baizik. Baina, jokoan dagoena gure eskubideak direnean, tinko erantzungo diogu datorrenari.

KLIK

Aulki hutsak Sigman


NAGORE CANCIO
ARGAZKILARIA



Eulogio Estarta: iraganeko isiltasunaren eta topaketan istorio bat kontatzen duten aulki hutsak. Denboraz kanpoko txoko bat, non atsedena itzalen eta eguzki-izpien artean marrazten den.



SEMAFORO

Igogailua, Herri Eskolara

"Udalari iradokizun bat egin nahi nioke. DMP aparkalekuaren atontzea dela-eta, ingurune hori bere osotasunean berritzea aztertu beharko luke. Batez ere, Herri Eskolarako igogailu bat egitea aztertu beharko luke. Maala aldetik jende asko igotzen da egunero Herri Eskolara, eta ez da bide eroso. Gaur egun igogailu mota asko daude, eta uste dut zona horretan oso ondo etorriko litzatekeela".

Txakur-kakak jaso, mesedez

"Hamaika ikusteko jaiok gara! Oraindik horrelakorik!? Txakur-jabe batek jaso du bere txakurraren kaka, baina hantxe laga du, apaingarri gisa edo. Sallobenterako bidea da, eta, hain justu ere, han parean baserri bat dago. Familia bat bizi da bertan, eta, horrez gain, jende pila bat ibiltzen da han, paseoan. Mesedez, errespetu apur bat!".

Zigarrokinak, zakarrontzira

"Zikinak dira erretzaileak. Urazandi auzoko elkarte gastronomiko baten aurrealdea zigarrokin bezala egoten da askotan. Barruan erretzea debekatua dute, antza denez, eta elkarte atarira irteten dira erretzaileak. Hautsontzi bat-edo hartu zezaketen, baina ez; zigarrokin guztiak lurrera botatzen dituzte. Oinezkoen bidean geratzen dira denak, eta benetan: nazka ematen du. Nork bere zikinkeria jasotzeko ardura izan behar du; bestela, jai dago".

Ia 200 lagun parte hartzen ari dira udako kirol campusean



ASIER ORBEA

196 haurrek eta nerabek hartuko dute parte aurtengo campusean, hamaika hezitzaileen gidaritzapean, lau astez. Astelehenean hasi zuten campusa, Mintxetan, beroari aurre egiteko neurriekin. Futbol zelaiko aspertsoreak piztu zituzten, gazteak freskatzeko. Haiek pozarren hartu zuten erabakia, eta urez-

tagailuen azpian ibili ziren batetik bestera. Campuseko arduradunek neurri gehiago ere hartu dituzte beroari aurre egiteko. Sarri egingo dituzte hidratazko etenaldiak, eta Mintxetako igerilekuak aurreikusia zutena baino gehiago erabiltzeko asmoa dute.

Mateos eta Labrador eta Conde eta Martinez irabazle pala txapelketetan

Asier Orbea ELGOIBAR

Lagunak Pilota Eskolak antolatzen dituen emakumezkoen zein gizonezkoen pala txapelketen finalak jokatu zituzten joan den barikuan. Kalegoen plazako pilotalekuan hasi eta Ikastolakoan bukatu behar izan zituzten finalak, gizonezkoena jokatzen ari zirela euria hasi baitzuen. Emakumezkoena osorik jokatu ahal izan zuten plazan. Yolanda Mateos eta Maialen Labrador gailendu ziren, Maria Badiolari eta Lidia Suarez 22-19 irabazita.

Gizonezkoen txapelketan, berriz, lehengo buruetan jarraituko dute txapelek, jarraian lortzen duten bigarren garaipena eskuratu baitzuten



Finalistak, sari-banaketan. LAGUNAK PE

Ander Condek eta Sergio Martinezek, Xabier Arrizabalaga-

ri eta Josu Espillari 22-17 irabazita.

Aldaolea eta Arriola nagusi Urruzuno trail lasterketan



Lasterketako podiuma. MIKEL ASKASIBAR

25 mendi lasterkarik parte hartu zuten estreinakoz jokatu zuten Urruzuno Trail Fest lasterketan, joan zen zapatuan. Antolatzaileek partaide gehiago espero zituzten arren, eskaintza ugariko asteburua izan zen, eta horrek eragina izan zuela uste dute. Lehiari da-

gokionez, Endika Aldaolea markinarra izan zen probako lehen irabazlea. 28 minutu eta 23 segundotan osatu zuen 5,5 kilometro ibilbidea. Emakumezkoetan, Pilar Arriola saltakari nekazaria izan zen azkarrena, 29 minutu eta 40 segundoko denbora eginda.

Futbolzaleen festa

Futbolzaleen topagunea izan zen Maalako parkea joan den zapatuan. CD Elgoibarrek paella-jan herrikoi baten bueltan agurtu zuen denboraldia, eta 500 bat lagun elkartu ziren. Bazkalostean, talde bakoitzeko jokalaririk erregularrena eta konpromiso handiena erakutsi duena saritu zituzten.



CD ELGOIBAR



Hasierako edizioetan Trenbide kalean gora joaten ziren bizikletaz. KIMETZ



1995eko argazkia. Gerora zeresana eman duten batzuk ageri dira argazkian. KIMETZ

40. aldiz, gaur, Nahaste Borraste

Nahaste Borraste herri triatloiairen 40. edizioa jokatu da gaur, Elgoibarren. 19:00etan hasiko da proba, eta izen-ematea proba hasi aurretxoan egin beharko da, Kimetz Elkartearen

Ainhoa Andonegi

Nahaste Borraste herri triatloiairen 40. edizioa jokatu da gaur Elgoibarren. Hiru kirol diziplina uztartzen ditu, baina ez dira triatloietako ohiko kirolak, eta horrek berak egiten du berezi proba: txirrindularitza, zaku-eramatea eta atletismoa batzen ditu Nahaste Borrastek. 19:00etan irtengo dira partaideak, Kalegoen plazatik, bizikletaz, eta zazpi kilometro pasatxoko ibilbidea osatu beharko dute; bizikleta

laga ondoren, 25 kiloko zaku lepoan hartuta –18 urtetik beherakoek eta emakumeek, 15 kilokoa– egin beharko dute alde zaharrean barrena, 400 metroko ibilbidean; eta, azkenik, korrika egin beharko dituzte 1,5 kilometro. Izen-ematea aurrez egin ez dutenek gaur bertan izango dute izena emateko aukera, Kalegoen plazan bertan.

Proba historikoa

Jose Maria Agirrebalzategi apaiza izan zen Nahaste Bo-

rraste probaren sustatzailea, eta 1947an antolatu zuen estreinakoz. 1948an ez zen probarik egin, eta 1949an izan zuen azkena garai hartako Nahaste Borrastek. 1988an, Kimetz Elkarteak hartu zuen hura antolatzeko ardura, eta, ordutik hona, haiek eutsi diote probari.

Palmaresa

1947an jokatu zuten estreinako edizioa Jose Garitagoitia *Basuetak* irabazi zuen, eta 1949koan

Felix Etxeberria *Parapan* gailendu zen. Etenaldi luzea izan zuen gero probak, harik eta 1988an Kimetz elkarteak berreskuratu zuen arte. Javier Alonso Basalok irabazi zuen urte hartan. Martin Domingezek 1993an irabazi zuen bere aurreneko Nahaste Borraste, eta gero, beste bost alditan izan zen azkarrena. Dominguez izan zen sasoi hartan probako dominatzaile nagusia, David Conderekin batera –lau irabazi zituen Condek–. Gerora, Iñigo

Lariz izan da probako erregea. 2008an jantzi zuen Larizek txapela lehenengoz, eta, gaur-gaurkoz, hark ditu garaipen gehien; hain zuzen ere, hamar aldiz irabazi du proba.

Emakumezkoen presentzia txikia izan da beti Nahaste Borrasten, eta izen bat gailentzen da beste guztien gainetik: Ainhoa Lendinez. Hamabost txapel irabazi ditu hark. Gozone Aierdik, bestalde, lau aldiz jantzi du irabazlearen txapela.

"Probaren errekorra izateak ematen dit harrotasun puntu bat, baina errekorrak hausteko daude"

IÑIGO LARIZ HAMAR ALDIZ, PROBAKO IRABAZLEA

Azken urteetan ez bezala, aurten parte hartuko dut, eta gogotsu nago, gainera. Nahaste Borraste Elgoibarren daukagun kirol-altxor txiki bat da. Oso proba berezia da, eta nik ez dut horrelakorik ezagutzen inguruko herrietan; zaku-eramate horrek oso berezi egiten du proba. Parte-hartzea ere mugatuta dago elgoibartarrentzat edo Elgoibarren lan egiten dutenentzat, eta horrek ere ematen dio berezitasuna. Egun hori eta aurreko egunak oso bereziak izaten dira; motibazioa eta urduritasuna batzen dira, eta tripa alde horretan sentsazio arraro bat izaten dut. Lasterketa

egunean ere oso urduri egoten naiz, hainbat arrazoiengatik: lasterketa motza da, azkarra, eta errikoren arriskua ere hor dago. Horrez gain, irabazteko aukerak ditudala jakiteak ere tentsioa areagotzen dit. Herrian bertan eta herritarren aurrean jokatzek ere presioa areagotzen du, baina niri presio hori gustatu egiten zait. Azken batean, osagai horiekin guztiekin lasterketaz gozaten saiatzen naiz. Aurten ez dut bereziki prestatu proba. Korrika ibili naiz kilometro bertikala prestatzen, baina horrek ez dauka honekin zerikusirik, eta bizikletan oso gutxi ibili naiz. Ikusi beharko



Lariz, 25 kiloko zaku lepoan duela, Errosario kalean. ASIER ORBEA

da nola erantzuten dudana. Errekorra edukitzeak ematen du harrotasun puntu bat, baina errekorrak hausteko daude, eta, nik beste batzuen hautsi nuen neurrian, nirea ere hautsi dezake besteren batek.

Ikusi egin beharko da. Nik, dena dela, hainbeste kirol egiten diharduten gazte zein heldu guztiei esango nieke izena emateko eta parte hartzeko, benetan merezi du eta.

Martin eta Jon Dominguez: 'Nolako zura, halako ezpala'

MARTIN ETA JON DOMINGUEZ AITA-SEMEAK

Sasoi batean, Martin Dominguez izan zen Nahaste Borrasteko dominatzaile nagusia. Sei alditan irabazi zuen proba, eta urte askoan harena izan zen errekorra. "Nik esaten du oraindik badaukadala errekor bat. Izan ere, nik errekorra egin nueneko ibilbidea jada ez da egiten. Beraz, errekor hura nirea da". Kirolaria izan da beti, eta lagun-giroan hasi zen parte hartzen. Hasierako urteetan gutxi entrenatzen zen, baina, gerora, proba serio hartzen hasi zen: "Nire aurkaririk gogorrena Alberto Zelaia izaten zen, eta esan nion niri

irabazteko ondo entrenatu beharko zuela". Ez zen, baina, Zelaia, kontrario bakarra: "Nire lagun eta auzokide David Conde ere lau bat aldiz izan zen txapeldun. Gogorra zen hura! Behin, mendiko bizikletarekin irabazi zuen". Oso proba berezia iruditzen zaio, eta uste du egunak asko laguntzen duela: "Lehen, beti ekainaren 21ean egiten zen, tokatzen zen eguna tokatzen zela, baina orain, ostiralez izaten da, eta jende asko irteten da plazara. Sekulako giroa egoten da". Jon Dominguez semeak ere parte hartzen du orain: "Estreinako aldian



Jon eta Martin Dominguez. LAGATAKOA

nire atzetik egin zuen proba, baina orain ezin diot jarraitu".

Aitaren bideari segi dio Jon Dominguezek. Triatloietan ibiltzen da, eta horrek laguntzen dio sasoiaren egoten.

Herrian lagunekin eta ezagunen aurrean korrika egitea polita dela iruditzen zaio, eta, ahal duen bitartean, urtero parte hartzeko asmoa du. Proba oso zirraragarria dela dio.

"Iaz ezin izan nuen parte hartu, eta ilusio handiz nago aurtengoa egiteko"

AINHOA LENDINEZ 15 ALDITAN JANTZI DU TXAPELA

Nahaste Borrasterekin daukadan harremana umetan hasi zen. Aitak hartzen zuen parte, eta ni hari laguntzera joaten nintzen. Plazan egoten nintzen, zapatila uzten zuenean zapatilak emateko, eta behar zuen beste edozertan laguntzeko. Ni zain-zain nengoen parte hartzeko, eta gogoratzen naiz parte hartu nuen estreinako aldian aitaren bizikleta zahar batekin egin nuela proba. Amaia Revertekin hartu nuen parte urte hartan, eta gogoratzen naiz lasterketa hasieran bizikletako katea irten egin zitzaidalda. Bakar-bakarrik geratu nintzen plazan, azkena. Antolakuntzakoren batek lagundu zidan, eta halaxe egin nuen. Beti

dago jendea laguntzeko prest, eta oso lasterketa polita da; zakuarekin korrika egin behar horrek egiten du proba berezi. Gogorra da, baina, aldi berean, oso zirraragarria. Uda giroan jokaten da, bariku arratsaldean, eta herria jendez beteta egoten da. Ikusleen artean egun horretan sortzen den giroa ere oso polita izaten da. Guretzat oso momentu hunkigarria izaten da Garate aurretik pasatzen gareneko. Ama, izeba eta hil berri zaigun amoni ere han izaten ziren animoak ematen. Iaz ezin izan nuen parte hartu, eta ilusio handiz nago aurtengoa egiteko. Nahaste Borrasteren astean gure etxean ez da beste gairik izaten, eta



Ainhoa Lendinez, Errosario kaleko azken metroetan. ASIER ORBEA

probaren ondoren ere irauten digu mintzagaiak bizpahiru egun! Ahizpak eta biok hartuko dugu parte, eta aita izango dugu botilero lanetan. Zereginak trukatu ditugu! Nik nahiko nuke emakumezko

gehiagok parte hartzea. Etxean izateak bertigoa ematen du, baina animatuko nituzke denak parte hartzera. Antolakuntzakoei txalo handi bat eman nahi nieke, egiten duten lanagatik.

Gurasoen erreleboa hartu du Mikel Gurrutxagak Nahaste Borrasten

GURRUTXAGA BARRUETABEÑA FAMILIA

Familia gutxi izango dira Nahaste Borrasten parte hartu izandakoak. Gurrutxaga-Barruetabeña sendia da bat. Juanjo Gurrutxaga izan zen etxeko lehenengoa Nahaste Borrasten parte hartzen. Etxean beti izan dira kirolariak, eta, horrez gain, herriko probetan parte hartzea ere gustuko dute. Hiruzpalau aldiz egin du proba, eta gogorra dela dio, baina polita: "Lasai egiteko asmoz irteten nintzen, baina dena emanda iristen nintzen plazara. Gogorrena zakuaren proba da; 25 kilo asko dira". Leire Barruetabeñak ere parte hartzea erabaki zuen gero. Eskubaloian

jokatutakoa da, kirolaria, eta, emakumezkoen presentzia urria zenez, izena eman zuen. "Bizikleta astebete aurretik hartu nuen, eta ez nekien aldagailua erabiltzen ere". Bi aldiz egin zuen proba, baina lesionatu egin zen eta ez du gehiago egin. Oroitzapen ona dauka; izan ere, bi edizioetan podiumera igo zen: "Hauei esaten nien neu nintzela podiumera igo nintzen etxeko bakarra. Orain ezin dut hori esan". Mikel Gurrutxaga semeak hartu die erreleboa, eta txapela jantzea zer den ere badaki. Lagun batekin egindako apustu baten ondoren hartu zuen parte



Mikel Gurrutxaga, Leire Barruetabeña eta Juanjo Gurrutxaga. ASIER ORBEA

lehenengoz: "Futboleko nabilen, eta ez nuen proba prestatu. Hala, lagunak irabazi zidan". Futbola laga ondoren, baina, triatloietan hasi zen, eta orain bai, gogoz

egiten du Nahaste Borraste proba. 2023an eta 2025ean hark irabazi zuen, eta, hain zuzen ere, gogotsu dago aurtengoa ere egiteko.

Unai Mendizabal Jauregik irabazi du Txirristaka Bertsopaper Lehiaketa

1.000 euroko saria jaso du, 'Abiadura handiko txikizioa' sortagatik

Ainara Argoitia MENDARO

Unai Mendizabal Jauregi zizurkildarrak irabazi du Txirristaka Bertsopaper Lehiaketako sari nagusia, AHTren obrek eragindako txikizioari eskainitako bertso-sortarekin. Ostiral iluntzean banatu zituzten sariak Mendaroko Udalak eta In Leike kultur elkarteak, eta, aurkezle lanak egin zituen Ainhoa Urbietak jakinarazi zuenez, guztira 112 lan jaso dituzte aurten lehiaketarako: 98, A kategorian; 2, B kategorian; eta 12, C kategorian, kategoria nagusian. Epaimahaia, berriz, honako hiru bertsolari hauek osatu dute: Amaia Agirrek, Mikel Arrillagak eta Irupe Basagoitik.

Hiru kategoria

Adinaren arabera hiru kategoria izan dira aurten ere. Kategoria nagusian, C kategorian, Euskal Herri osoko lagunek parte hartu zezaketan, eta Unai Mendizabal Jauregiaren *Abiadura handiko txikizioa* bertso-sorta nabarmendu zuen epaimahaia. Epaimahaikoen ustez, "oso bertso ederrak" dira, ahokotasunetik asko dutenak. "Oso erraz sartzen dira belarrira, eta



Saridunak, antolatzaileekin. Saridunen artean bat falta da, Hiart Larrañaga. AINARA ARGOITIA

melodia eta gozotasun handikoak dira. Behartu gabeko punturik ez du, eta hori da sorta batek duen zailtasunik handiena. Antzematen da gertuko gaia duela. Nabari da Abiadura Handiko Trenaren obra eta txikizioak larrutik bizi izan dituela. Buruan ibili eta paperera ekarritako bertso-sorta bat dirudi, garai batean bertsolari askok egiten zuten moduan. Maisulan bat", nabarmendu zuten. Garaikurra

eta 1.000 euroko saria eskuratu zituen Mendizabalek.

Kategoria nagusiko bigarren saria Ekaitz Goikoetxea Asubarrena beasaindarrarentzat izan zen. Garaikurra eta 500 euroko saria eskuratu zituen Goikoetxeak, *Orain badakizu* bertso-sortarekin. Umetan sexu-erasoak jasan zituen emakume baten larrutik jarritako bertsoak dira. Egileak berak azaldu zuen Patxi Ezkiagak egin

dako abusuek eragindako minak eraman zuela bertsook idaztera: "2024an atera ziren argitara Patxi Ezkiagaren abusuak eta. Hurbileko laguna nuen Ezkiaga, eta oso gaizki pasatu nuen. Momentuan bertan salatu nituen krudelkeria eta basakeria haiek guztiak, baina barruak eskatzen zidan nik izan nitzakeen armerkin erantzutea hari". Epaimahaikoez nabarmendu zuten "oso sorta gordina" dela Goikoetxearena, baina hitz-jokoz eta literatur baliabidez jantzia eta maila jasoko sorta. "Dohain eta abilezia berezia antzematen zaio errimategiari eta puntuen arteko loturari erreparatuta. Hamarreko txikian, molde ertainean baina metrika estuan, gauzak argi eta eder esateko dotorezia saritu da", zehaztu zuten.

B kategorian, 2008 eta 2011 urteen jaiotakoek parte hartu zezaketan, eta bi lan bakarrik aurkeztu dira lehiaketara. Epaimahaia, baina, saririk ez ematea ebatzi zuen, behar beste mailarik ez zutela iritzita. Azkenik, A kategorian, 2021ean edo ondoren jaiotakoek kategorian, 98 lan aurkeztu dira, eta, guztien artean, Nora Garate Larrañaga elgoibartarraren *Palindromo maitea* izenburudun bertso-sorta apartatu du epaimahaia. Amarenganako miresmena, amarekiko sentitzen duen zorra eta esker ona dira bertso horietan barnebiltzen diren zutabeak. Epaimahaia "errima zaindua eta esamolde bihurrie-

tan ez ezik poetikoetan egindako saiakera" saritu dizkio, bai eta bertsoan adierazi duen heldutasuna ere. Garaikurra eta ehun euroko kultura-bonua eskuratu zituen Garatek.

Maila horretan, bigarren saria Hiart Larrañaga Gonzalez mendaroarrari eman zioten, *Gerra* izenburudun sortagatik. Lehenengo bertsoan, lehenengo leerroan, Donald Trumpi zuzentzen zaio bertso egilea sorta horretan. Munduko gerra guztiak amaitzearen aldeko eskaera ozena da. Epaimahaia bereziki "ideiaren eta errimen aberastasuna eta kontakizun jarraitu eta koherentea" azpimarratu dizkio.

Larrañaga falta izan zen sari-banaketa ekitaldian, eta haren lagun Anitz Ezenarro jaso zuen saria beraren izenean. Garaikurra eta 50 euroko kultura-bonua egokitu zitzaizkion Larrañagari. Hain justu ere, haren izenean saria jaso zuen Anitz Ezenarro izan zen ostiralean saritu zuten beste laguna; hark aipamen berezia jaso zuen, *Amets ahaztezina* lanagatik. Bereziki, ideia eta originaltasuna goraiatu eta saritu zizkion epaimahaia.

Ekaitz Goikoetxearentzat izan da bigarren saria, kategoria nagusian

Amagoia Basurtok irabazi du santanetako kartel lehiaketa

Hamabost lan jaso dituzte aurten santanetako kartel lehiaketarako, eta epaimahaia – Aitor Etxeberria eta Jaime Zamakolak – Amagoia Basurtoren lana apartatu du guztien artean. Aurten jaietako banderatzokak josi dituzten Josi Ta Josi taldekoak izan ditu gogoan Basurtok bere diseinuan. Irudian, banderatzokoen egindako zurrunbilo baten erdian Santa Ana ermita ageri da, eta han goian, Katasorgina, banderatzokak eskegitzen. 300 euroko saria eskuratu du irabazleak.



AINARA ARGOITIA

Barkamena eskatu dute Trinitateko Jai Batzordekoek

Trinitateko jaietan izandako salmonella-agerraldiagatik barkamena eskatu die herritarrei Trinitateko Jai Batzordeak. Azaldu dutenez, Osakidetzak egindako dei baten bitartez izan zuten gertatutakoaren berri, eta aitortu dute egun gogorak izan direla, herritar asko gaixotu direlako. Ondozik egon diren guztiak sendatu dira, baina eragindako kaltea biziki sentitzen dutela esan dute Jai Batzordeko ordezkariak.

Dozenatik gora lagun gaixotu ziren Trinitateko Jai Batzordeak jarritako txosnak egindako mokaduan, eta haietako batzuk ospitalean egin zituzten egun batzuk, ingresatuta.

Kuadrilla Eguneko paella-janerako izena emateko epea, zabalik

Zabaldute santanetako Kuadrilla Egunean ikastolako frontoian egingo den paella lehiaketarako eta herri-bazkarirako izena emateko epea –uztailak 18–. Uztailaren 5a arteko epea dago izena emateko, eta izen-emateak kuadrillak egin beharko dira, *Mendaro.eus* webgunean sartuta.

Paella lehiaketan izena emateko, 14 urte beteak izan beharko dira, eta bazkarirako best euro ordaindu beharko dira pertsonako. Kuadrillak izen bat eman beharko du, eta bi lagun izendatu beharko ditu arduradun. Paella lehiaketa 13:00etan hasi eta 14:30ean amaituko da.

Enaitz Iraolagoitia eta Danel Garaizabal, mendiko bizikletako Espainiako Txapelketara

Uztailaren 3an jokatu dute proba, Melillan, euskal selekzioarekin

Ainara Argoitia MENDARO

Punta-puntako denboraldia osatu dute Besa-Geminis taldeko Enaitz Iraolagoitia mendaroarrak eta Danel Garaizabal elgoibartarrak, eta egindako lanak saria ekarri die. Izan ere, euskal selekzioak hautatzailearen deia jaso berri dute uztailaren 3an Melillan jokatu den Espainiako Txapelketan lehiatzeko.

Asko dira batak zein bestek denboraldian zehar lortutako lorpenak. Zapatuan, esaterako, Green Series nazioarteko zirkuituko zazpigarren proba eta azkena irabazi zuen Iraolagoitiak, Lezaman, eta laugarren egin zuen haren taldekide Danel Garaizabalek. Zazpi proba izan dira guztira, eta, nazioarteko zirkuitua izanda, maila handiko txirrindulariak lehiatu ziren guztietan. Hala ere, sarri igo dira podiumera Besa-Geminis taldeko mutilak: lau aldiz Garaizabal eta birritan Iraolagoitia. Eta orain arteko emaitza horiek guztiak batuta, sailkapen orokorrean bigarren eta hirugarren amaitu dute, hurrenez hurren, Garaizabalek eta Iraolagoitiak. 1.060 puntu eskuratu ditu elgoibartarrak eta 1.000, mendaroa-



Enaitz Iraolagoitia eta Danel Garaizabal. LAGATAKO ARGAZKIAK

rrak. Green Series zirkuituko txapelduna, berriz, Joanes Aldaba (Saltoki Olza Sagardoy) izan zen, 1.230 punturekin.

Euskal Kopa, lider

Bi liga jokatu dituzte aurten mendiko bizikletan: Green Series nazioarteko proba, batetik, eta Euskal Kopa, bestetik; eta hor ere onenen artean ibili dira Besa-Geminis taldeko txirrindulariak. Kopa bukatzeko lasterketa bakarraren faltan, Danel Garaizabal Mujika dago lider sailkapen nagusian, eta 50 puntuko

aldea ateratzen dio bigarren sailkatuari. Beraz, oker handirik ezean, eskura dauka txapela elgoibartarrak. Uztailaren 11n jokatu dute azken proba hori, Abadiñon. Aipagarria da Garaizabalek egin duen denboraldia, ez baita ahaztu behar maiatzaren 31n Gipuzkoako txapeldun izan zela, Oiartzunen. Gipuzkoako Txapelketa irabazita, Euskadikoa zuten begiz jota, eta irabaztetik koska batera gelditu zen Garaizabal, bigarren eginda. Euskadiko Txapelketan laugarren egin zuen Iraolagoitiak.



Peru Bonilla, eskuak jasota, helmugan. AINARA ARGOITIA

Peru Bonilla garaile Mendaron, Gipuzkoako Itzuliko lehen etapa

A.A. MENDARO

Peru Bonillak (Intxausti-Urabai) irabazi zuen zapatuan Mendaron jokatu zuten Gipuzkoako Itzuliko lehenengo etapa. 105 kilometro pasako ibilbidea osatu zuten txirrindulariek, eta bidean bigarren mailako bi mendate igo behar izan zituzten: Kalbario eta Arribinieta; biak ere, Mutrikun. Lasterketa, baina, esprintean erabaki zen. Zazpi bat txirrindulariko taldea elkarrekin sartu zen herrian, eta esprintean gailendu zen txirrindulari bizkaitarra. Podiuma Eñaut Saizarrek (Limousin Oriako) eta Xabier Molinuevok (Ipar Maquina-Dimaq) osatu zuten.

Taldeka, berriz, URT Velo 64 taldekoak izan ziren onenak, eta Erregularitasunaren Saria eta Mendiko Saria etapa irabazi zuen mutil berarentzat izan ziren, Bonillarentzat.

Beroak baldintzatutako Itzulia

Gipuzkoako Itzuliko lehenengo etapa izan zen Mendarokoa, baina baita azkena ere, domekako eta asteleheneko etapak bertan behera laga zituelako Federazioak, beroagatik. Hala, Mendaron lider jarri zen Conor Aranburu O'Reilly irabazi du Itzulia. Podiuma, berriz, Eñaut Bilbao Arriagak (F2 Informatica) eta Eñaut Saizar Aizpuruak osatu dute.

Hasi dituzte udalekuak Mendaron, 60 bat umerekin

Uztailaren 3an bukatuko dute lehenengo txanda, eta uztailaren 6tik 17ra izango da bigarrena

A.A. MENDARO

Aisialdia lagunartean eta euskaraz gozatzeko aukera izango dute Mendaroko udaleku irekietan izena emandako haurrek. Astelehenean hasi zituzten udalekuak lehenengo txandan izena emandako 60 bat umek eta zortzi begiralek. Ikastolako jolastokian elkartu ziren guztiak, 09:00etan, eta, hasierako aurkezpenak egin eta talde-argazkia atera ostean, jolasteari ekin zioten, taldetxoka banatuta. Eguraldi beroagatik aste

honetarako aurreikusitako plana aldatu egingo zutela jakinarazi zieten egunean bertan haurrei eta gurasoei begiraleek, eta ziur gogotik hartu zutela erabakia denek, uretako jolasak egiteko asmoa dutelako eta ura beti delako gozagarri haurrentzat.

LH3 eta LH6 arteko haurrentzako eskaintza da, eta bi txanda izango dira: uztailaren 3an amaituko dute lehenengo txanda eta uztailaren 6tik 17ra arte izango da bigarrena.



Haurrak eta begiraleak, asteleheneko aurkezpenean. AINARA ARGOITIA



Betiondoko aparkalekua, jendez gainezka, iazko jaialdian. ELEKTROJAIA

Hamaika orduz, tekno musikaren erritmora dantzatuko da Ermua, 18. Elektrojaian

Betiondon izango da, zapatuan; gaur, barikua, aurrejaialdi festa egingo da herrigunean

Ander Gomez

Apirilean, Primavera Festak reggaeton-zaleak batu zituen Ermuko plazan; maiatzean, rock-zalez bete zuen herrigunea Vertigo Rock jaialdiak; eta orain, ekainean, bertako zein lekutako elektronika-zaleak ekarriko ditu Elektrojaia. Urteroko kartela osatzen duen Iñigo Diaz DJ nafarrak sareetan aipatu duenez, "adin nagusitasunera" ailegatu da jaialdia: hemezortzigarren aldia ospatuko du. Hala ere, haren esentziari eutsiko dio: Betiondoko aparkalekuan egingo da -igerileku irekiaren alboan-, eta, gune itxia izango den arren, sarrera libre izango du, edonori musikaz gozatzeko aukera ematearen filosofiari jarraituz.

Bihar, ekainak 27, izango da, 17:00etan hasita, eta Estatuko

eta nazioarteko artistak arituko dira nahaste-mahaien atzean, ordu txikiak arte.

Bi agertoki: nagusia eta klasikoan karpa

Dave Clarke britainiarra da aurtengo kartelburua, tekno eszenako izen ezagunenetakoa, eta Main Stagean arituko da, 02:00etan. Hura izango da jaialdia ixtearen arduradun, 04:00retan. Aurretik, eszenatoki nagusitik pasako dira, besteak beste: Truncate eta Pushmann, B2B saioan; Koldo Intermusic; eta Atxe.

Old School Room karpa izango da bigarren gunea, eta elektronika klasikoagoari lotutako programazioa eskainiko du, Iñigo Diazen, Novaren eta Nina Casthen saioak tarteko.

Zortzi ermuar kartelean

Edizio guztietan bezala, bertako talentuaren presentzia nabarmena izango da. Ash eta Pirata ermuarrak Main Stagean arituko dira; eta Javier Ganuza, Blanko, Pirata, Nei, Markos, Ash, Anuxx eta DJ Bixent, Old School Roomean. Haiez gain, eszenatokitik kanpo aritzen diren eta jaialdia posible egiten duten herritar asko ere bertan izango dira, antolakuntzan, muntaketan eta bestelako laguntza lanetan.

VIP gunea

Jaialdiaren filosofia edonorentzat irekia izatea den arren, gune pribatua ere eskainiko dute, antolakuntzako gastuei aurre egiteko diru-sarrera osagarri gisa. VIP paseak 35 euroko kostua du, eta horren truke bi eda-

ri, mahaia, barra eta komun pribatuak eta aurtengo edalontzi berrerabilgarria jasoko dira.

Aurrejaialdia, gaur

Aurreko hilabeteetan Elektrojaia On Tour egitarauaren bidez jaialdirako beroketa egin badute ere, giroa are gehiago pizteko aurrejaialdi festa egingo dute gaur, Martxoaren 8a plazan. 18:00etatik 23:00etara izango da, eta Pirata, Ash, Anuxx eta Blanko ermuarren DJ saioez gozatzeko aukera egongo da.

Ordutegia

Ekainak 26, barikua

Martxoaren 8a plaza
18:00-19:00 Anuxx
19:00-20:30 Pirata
20:30-22:00 Ash
22:00-23:00 Blanko

Ekainak 27, zapatua

Betiondoko aparkalekua

MAIN STAGE

17:00-18:00 Atxe
18:00-19:30 Ash
19:30-21:00 Pirata
21:00-23:00 Koldo Intermusic
23:00-02:00 Truncate B2B Pushmann
02:00-04:00 Dave Clarke

OLD SCHOOL ROOM

17:00-18:00 Anuxx
18:00-19:00 Blanko
19:00-20:30 Nova
20:30-22:30 Iñigo Diaz
22:00-23:00 DJ Bixent
23:00-00:00 Javier Ganuza
00:00-01:00 Nei
01:00-02:00 Markos
02:00-03:30 Nina Casth

Gaurtik domekara ospatuko dituzte San Pelayoko jaiak

A.G.

Gaur arratsaldean hasiko dira San Pelayoko jaiak, Eibarko Os Galaicos taldearen kalejirarekin. 19:00etan abiatuko dira, Rincon tabernatik, eta gaiten eta Gali-ziako instrumentu tradizionalen doinuak zabalduko dituzte kalez kale. 22:30ean, rock doinu astunen txanda izango da, Ermuko Norbac taldeak parkean emango duen kontzertuarekin.

Bihar, zapatua, Umeen Eguna izango da: puzgarriak izango dituzte Tribunako plazan, eta apar-festa parkean. 18:30ean, meza izango da, kaperan, eta, ondoren, Niala magoaren ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute 20:30ean egingo den afarira batzen direnek. 23:00etan hasita, Leo Events DJ bilbotarrak girotuko du gaua.

Domeka goizean, puzgarriez gain, inklusio joko bereziak egongo dira. 12:30ean, batukada kalejira hasiko da, eta, bukatutakoan, sardina-jana egingo dute, parkean. Jaiak agurtzeko, Your Version Bilbao taldeak kontzertua emango du, 19:00etan; kantu klasikoan zein egungo famatuaren bertsoak interpretatuko ditu.



Norbac taldea, iazko Vertigo Rocken. N.B.



Tchin Tchin
UDA

**BESTE 2 BETAURREKO
EURO BAT GEHIAGOAN***

ETA 3.A ZURETZAT EDO OPARITZEKO

AFFLELOU AVENTURERE, AFFLELOU CIAO, AFFLELOU JEAN modurik

*Eskatzen baliagarria 2026-06-30era arte, Espainian eta Andorako Alain Afflelou optika gutxiesten. Buzi baldintzak optikan edo afflelou.es-en. Gurasu-produktuak buruz indarman, eragonezko ingeniari berretzen du 1,75 enregistrazio-zerbakia.

ALAIN AFFLELOU
Óptica, Audiólogo

**SAN BARTOLOME
KALEA, 10
ELGOIBAR**

943 74 37 34

Eskatu txanda
afflelou.es



"Arku-tiroan lehiatzean, burua hotz mantentzea lortzen duenak janzten du txapela"

ISIDRO GANUZA ARKULARIA

Longbow modalitateko Euskadiko txapeldun absolutua da eta euskal selekzioa garaipenera eraman berri du beteranoen Estatu mailako lehen txapelketan

Ander Gomez

Isidro Ganuza Beunza (Ihaben, 1959) 18 urterekin etorri zen Ermura, 40rekin hartu zuen lehen aldiz arku, eta harrezkerro ez du utzi. Ermuko arku-tiro klubaren sortzaileetako bat da, eta 2022-2023 eta 2024-2025 urteetan Euskadiko txapeldun absolutu izan zen longbowarekin. Joan den astean, Espainiako Beteranoen Arku-tiro Txapelketa irabazi zuen, Iñaki Gerenabarrena eta Jorge Carrasco arabarrekin batera, euskal selekzioa ordezkatuz.

Estatuko lehen longbow txapelketa jokatu duzue beteranoen kategorian. Nolako izan da esperientzia?

Oso polita, eta,aldi berean, gogorra. Madrilen izan zen, eta bero handia egin zuen, 33 gradurekin eta eguzkipean jokatu genuen.

Eta lehia?

Banakako proban ondo eta gustura egin nuen lehen tiraldia, baina final-laurdenetako buruz burukoan Carrascoren kontra galdu egin nuen. Hura laugarren sailkatu zen, ni zortzigarren eta Gerenabarrena bederatzigarren. Emaizta horiei esker, taldekako sailkapenean bigarren geratu ginen eta lehen kanporaketa saihestu genuen. Finalurrekoe-tan Gaztela-Mantxari irabazi genion, eta finalean Andaluziari. **Espero zenuten garaipena?**

Inondik inora; hirurak harrituta geratu ginen. Madrildarrak indartsu hasi ziren, eta, faberitoak izan arren, hirugarren postuan bukatu zuten. Euskadiko txapeldun izan nintzenez izandako sentsazio berbera izan nuen: momentuan ez duzu sinesten, tanteoa berrikusten duzu akatsen bat topatu nahian edo. Gero, zorionak, besarkadak... ailegaten dira, eta konturatzen zara lortu duzula, txapeldun zarela. Gainera, ez ginen ira-



Isidro Ganuza, longbowa eskuan. A.G.

bazle bakarrak izan: euskal selekzioko beste kategorietako talde eta norbanakoen artean, sei domina ekarri genituen etxera; horietatik lau, urrezkoak. Zirrargarria izan zen hainbeste ikurrin podiumean ikustea. **Zein izan da gakoa?** Nerbioak. Beti da nerbio kontua. Orokorrean, maila oso parekatuta dago txapelketa guztietan, eta ez du trebeenak irabazten, momentu erabakigarrietan burua hotz mantentzea lortzen duenak baizik.

"Edonork praktikatu dezakeen kirola da; Betiondon gazteak zein jubilatuek gaude, eta polita da hori"

Zuk nola kudeatzen duzu urduritasun hori?

Egunaren arabera da, baina urteekin baretu egiten dela sumatu dut. Azkenean, hogeita bost urte baino gehiago daramatzat kirol honetan.

Longbow modalitatean lehiatzen zara; zertan desberdintzen da besteetatik?

Arku luzea esan nahi du eta tradizionalena da. Azkenean, makila bat eta soka bat besterik ez da. Egurrezko geziak erabiltzen ditugu, luma naturalekin, eta ez du ez bisorerik, ez egonkortzailerik, ez bestelako laguntzarik. Dena arkulariaren esku dago. Ehun Urteko Gerran ospe handia hartu zuen, ingelesek arkuok eskuan Frantziako zalditeria osoa mendean hartuta. Hori bai, garai hartako longbowak gaur egungoak baino askoz indartsuagoak omen ziren, bi metro ingurukoak eta hirurehun metrora iristeko gai.

Zerk eraman zintuen aukeratzera?

Duela sei urte probatu nuen, eta, eroso sentitzez gain, emaitza hobeak lortzen hasi nintzelako egin nuen aldaketa; kar-kar. **Ze beste modalitatetan aritu zara?** Bakarrean aritu nintzen hogeituz, longbowaren ondorengoa den arku errekurbatuarekin. Olinpiadetan erabili ohi dena da; oso teknikoa, bisoreekin, kontrapisuarekin... Baina eskakizun fisiko handiagoa du, eta urrunagotik jaurtitzeko, 70 metrora -longbowa, 30 metrora-. Azkenean, adina ere igartzen da. **Akordatzen zara arku eskuan izan zenuen lehen aldian hartaz?**

Oporretan izan zen, hotel bateko aisialdi-jardueretan. Basilio Izquierdo lagunak esperientzia handiagoa zuen ordurako, eta, Jose Mari Muñozekin batera, hirurok batu ginen duela hogeita piko urte Ermuko arku-tiro



Iñaki Gerenabarrena, Irantzu Coto -delegatua-, Isidro Ganuza eta Jorge Carrasco. EATF

taldea sortzeko: Betiondo kluba. Ikastolako gimnasioan hasi ginen entrenatzen, eta pixkanaka-pixkanaka forma hartu zuen.

Zein da klubaren egoera gaur egun?

Asko aldatu da, baina,aldi berean, toki berean jarraitzen dugu, Anaitasuna eta Ongaraiko jolas-tokietan entrenatzen. Sorreran geunden hiru lagunok ere jarraitzen dugu: Basilio presidente, Jose Mari idazkari eta ni diruzain. Hamasei arkulari gaude aktibo, eta adin guztietako jendea dago: gazteena DBHn dagoen neska bat da. Hori da arku-tiroaren gauzarik politenetako bat, edonork parte hartu dezakeela.

Belaunaldien arteko erreleboa bermatuta dago, hortaz.

Bai, baina egia da gazteek jarraitzeko zailtasun handiak dituztela. Motibazio handiarekin hasten dira, baina kirol hau oso errepikakorra da: gezi bat bestearen atzetik jaurti behar da, etengabe, eta horrek pazientzia eta kontzentrazio handia eskatzen ditu. **Klubean hartu duzue neurririk gazteok kirolari lotuta jarrai dezaten?** Gazteei ez ezik, klubera hurbiltzen den edonori bizpahiru hilabeteko probaldia egitea proposatzen diogu. Ez dute ezer ordaindu behar, eta guk lagatzen diegu material guztia. Azken

finean, garestia da, eta benetan jarraitu nahi dutela ikusten dugunean hasten gara materiala erosteko gomendioak ematen. Orduan pasatzen dira gutako beste edozein bezala izatera, urteko kuota ere ordainduz.

Kuota horrekin mantentzen da kluba?

Diru horrekin ituak, parapetoak eta eguneroko gastuak ordaintzen ditugu. Baina ezinbestekoak ditugu ere, besteak beste, Udalaren laguntza, entrenatzeko espazio egokiak lortzen dizkigula beti; eta Euskal Federazioarena, txapelketetako bidaiak, egonaldiak eta izen-emateak bere gain hartzen dituela. Madrilen eurei esker lehiatu ahal izan gara, eta datozen asteetako txapelketetan ere berdin izango da.

Zeintzuk dira hurrengo erronkak?

Zapatu honetan Euskadiko Beteranoen Txapelketa jokatu da, eta datorrenean Euskadiko Absolutua, biak Hondarribian.

Aukerarik ikusten duzu?

Euskal Ligako emaitzak onak izan dira; beraz, oso gaizki jokatu beharko nuke absoluturako sailkapena ez lortzeko. Gero, hiruzpalau arkulari gabilta parez pare, eta, esan bezala, egun horretan nerbioak hobekien baretzen dituenak jantziko du txapela.



Euskal selekzioa, podiumaren gorenean; Ganuza, eskua altxatuta, urrea ospatzen. EATF

Zortzi gazte errefuxiatu palestinarrek Ermua bisitatuko dute Palestina Egunean

Palestinari elkartasuna adierazteko ekintza artistiko ugari egingo dira bihar

Ander Gomez

Bihar, zapatua, Palestina Egunaren hirugarren aldia ospatuko da Ermuan. Aurtengoa berezia izango da, Zisjordaniako Nablus hiririk gertu dagoen Nablatako errefuxiatuen kanpamentutik datozen 10-15 urte bitarteko zortzi neska-mutil izango dituelako protagonista. Kanpamentu hartan Israelgo armadak beren herrixketatik kanporatu dituen 23.000 pertsona baino gehiago bizi direla azaldu dute Ermua Palestinarekin Ekimeneko ordezkariak. Umeei espazio seguruak eta laguntza eskaintzeko lan egiten duen Childhood and Tolerance Center (Haurren eta Tolerantziaren Aldeko Zentroa) Palestinako elkarteak Europara ekarri ditu. Durangaldea-Palestina koordinakundeak gonbidatuta, Euskal Herria bisitatzen eman dute astea, eta bihar, Ermutik pasako dira.



Ermuan izango diren gazteak, aireportuan. E.P.

Artea, jolasak, musika eta bazkaria Palestina Eguneko egitaraua goizean hasiko da, 11:30ean, errefuxiatuen kanpamentuko nes-

ka-mutilei Orbe Kardinala plazan egingo zaien harrerarekin. Ondoren, haurrentzako tailerrak eta jokoak egongo dira, Antxi-

txiketari Aisialdi Taldearen eskutik. Aldi berean, erakusketa jarriko dute plazan: 2009-2026 urteen artean Ermuan egindako Palestinaren aldeko ekimenen kartelen bilduma.

13:00etan, argazki kolektibo erraldoia aterako dute Palestinako herriari elkartasuna adierazteko. "Herritar guztiak argazkiarekin bat egitera gonbidatzen ditugu, Ermutik palestinar herriari gure maitasuna helarazteko eta jasaten ari diren genozidioaren aurrean mantentzen ari diren erresistentziari babesa emateko", azaldu dute Ermua Palestinarekin Ekimeneko ki-deek.

Ondoren, neska-mutil palestinarrek Dabke dantza tradizionalaren erakustaldia egingo dute. Musika ez du etenik izango, eta 13:30ean, Nur eta Ahmed Alhadad artista gazatarrek kontzertua emango dute.

Eguna borobiltzeko, herri-bazkari irekia egingo dute plazan, 14:30ean. Menu bakarra dago, eta entsalada, oilasko gisatua, fruta eta kafea barne hartzen ditu. Txartelak Infreñu tabernan daude eskuragarri, eta gaur, barikua, izango da erosteko azken eguna.

Zinema San Pelayon, sarrera librearekin eta astelehenean aurrera

2026ko udal aurrekontuaren prozesu parte-hartzailearen baitan, 30.000 euro laga ziren 6 eta 13 urte bitarteko herritarren esku. 988 umek bozkatu zuten, eta aire zabaleko zinemaren eskaintza udako hilabete guztietara zabaltzea aukeratu zuten, bideojoko eta robotika tailerrak antolatzeko eskaerarekin batera. Udalak lau film proiektzio iragarri ditu datozen bi asteotarako. Guztiak San Pelayon proiektatuko dira, 21:00etan, eta sarrera libre izango da.

Lehen filma, *Cazafantasma: imperio helado*, datorren astelehenean proiektatuko da, ekainaren 29an. Bigarrena eguaztenean izango da, uztailearen 1ean, Lebron James saskibaloilaria eta Looney Tunes marrazki bizidunak protagonista dituen *Space jam: aro berria* filma, euskaraz. Uztailearen 6an, astelehena, *Momiak* animazio filma proiektatuko da, hori ere euskaraz. Zikloa uztailearen 8an, asteazkena, bukatuko da, *Campamento Garra de Oso* filmarekin.

Genero, arraza eta jatorri askotariko lagunak batu zituen Mundialitoak

Zapatuan, Colibresek antolatutako II. Mundialitoa ospatu zen Ongarai eskolan. Denera, ehun lagunetik gora batu ziren eskubaloia eta futbol lehiara, tailerretara, bazkarira eta bukaerako festara, elkartasuna, kultur aniztasuna eta gune publikoen erabilera komunitarioa aldarrikatzeko.



COLIBRES ERMUA

'Itzalpeko emakume zientzialariak' ikusgai Izarra Zentroan



Erakusketako panel bi. UDALA

Zientziaren arloan nabarmendu diren emakume ikertzaileen biografiak jasotzen ditu *Itzalpeko emakume zientzialariak* erakusketak. Emakume bakoitzak panel bat eta QR kodigo bat du. Horien bitartez, EHUko *Zientzia kaiera* blogeko eduki osagarriak kontsultatu daitezke.

Erakusketa doakoa da, Izarra Zentroko sarreraren egongo da ikusgai uztailearen 15era arte. Eraikina zabalik dagoen ordu-tegian bisitatu ahal izango da, 08:00etatik 22:00etara.


ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA


688 619 896
Zeharkale, 12 behea
48260 ERMUA
IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675


colchoneria textil bogar
Ezagutu udaberri-udara denboraldiko ehunak!
Ohazalak eta edredoiak
Nordikoentzako zorroak
Izarak
Toailak
Tapizatuak
Udako mantetan aukera zabalak!
San Roke kalea, 20 - Elgoibar
943 74 44 57 - 685 75 69 78 - www.textillagunak.com

"Ez dut luzaroan lehiatu nahi, baina, behin honaino ailegatuta, dena emateko prest nago"

NESTOR ALONSO KICKBOXING BORROKALARIA

Ander Gomez

Mallabira ezkonduko Nestor Alonso Enriquezek (Bilbo, 1986) aspaldi laga zion bere burua *bilbotar* izendatzeari nongoa den galdetzen dioten bakoitzean. Bertako natura eta lasaitasuna maite dituela dio, baina baita praktikatzen dituen kontaktu-kirolak bultzatzen dituen herria izatearren ere. Urte hasieran ekin zion txapelketetan lehiatzeari, eta bihar, ekainak 27, euskal selekzioa eta Mallabia bera ordezkatzeko ditu Bilbon jokatzeko den Estatu mailako Kickboxing Txapelketan.

Nola ailegatu zara hain azkar euskal selekzioarekin lehiatzera?


Ez da jendeak pentsa dezakeen bezain zaila. Beteranoen kategorian ez dago apenas jenderik, eta, askotan, izena ematearekin bakarrik sailkatzen zara. Kasu honetan, horrela izan da.

Modalitate askoko kirola da kickboxinga; zeinetan lehiatuko zara?

Espazioa bera ere bereizten da: ringa eta tatamia daude; ni azken horretan lehiatzen naiz. Modalitateak kontaktu mailaren eta baimenduta dauden gorputz atalen arabera desberdintzen dira. Bitan arituko naiz ni: izterretako ostikoak baimentzen dituen Kick Lighten; eta belauen erabilera onartzen duen K1 Lighten.

Zela ikusten dituzu borrokak?

Aurkari bakarra daukat bietan; beraz, Estatuko bigarrena izango naiz, behintzat; kar-kar. Baina espero dut irabaztea.



Nestor Alonso, borrokatzeko prest. N.A.

Eta irabaziz gero?

Munduko Txapelketa jokatzeko Madrilen. Ikaragarria litzateke. Baina biharko txapelketa jokatzeko bakarrik oparia da.

Prestakuntza gogorra izango da...

Eguneroko lana da, saio bereziekin. Baina entrenatzaile ona daukat eta asko disfrutatzen dut. Ikastea gustatzen zait.

Zein klubekin diharduzu?

Indarxportekin. Durangoko gimnasio batean zegoen; orain, leku berria zabaldu dute Iurretan. Txoko ederra entrenatzeko.

Eurekin hasi zinen?

Bai, lauzpabost urte atzera. Betidanik karatean aritu naiz, baina semeak jaiotzean laga egin nuen. Eskolan hasi zirenean bueltatzeko gogoia etorri zitzaidan, eta eskaintza begiratzen nengoela topatu nuen kluba. Eurekin harremanetan jarri nintzen, eta justu Mallabiko

lehen kickboxing gaua antolatzen ari ziren. Ikustera joan nintzen, gustatu egin zitzaidan eta izena eman nuen.

... noizbait Mallabiko borrokaldiko kartelean agertzeko asmoarekin?

Horiek ringeko borrokak dira, kontaktu osoarekin eta KOra, seko laga arte! Gustatuko litzaidake, baina ez dut denborarik, eta, gainera, 20 urtekoen kontra lehiatu beharko nuke...

Gazteen kontra aritu zara inoiz?

Bai, eta aldea nabaritzen da: fisikoa, tamainan eta entrenatzen daramaten denboran. Aldez aurretik dakizu nola bukatuko den borroka. Guztiak galdu nituen, baina batean parez pare egon nintzen. Asko ikasi eta ondo pasatu nuen arren, orain nire kategorian zentratuko naiz; gazteak elkarren artean konpondu daitezela; kar-kar.

Karatean aritu zara, eta igartzen da kariño berezia diozula, baina zer nabarmenduko zenuke kickboxingetik, karatearekin alderatuta?

Karatean konbatea eta katak daude. Borrokak erakartzen nau ni, eta kickboxinga konbate hutsa da; horrek erakarri ninduen. Baina egia da epe ertainera ka-

"Inportanteena parte hartzea da; animatzen ez denak ez du ezer lortzen, ezta ondo pasatzen ere"

ratera bueltatzea gustatuko litzaidakeela.

Bukaera hurbil ikusten duzu, orduan?

Txapelketa honetan ez badut ezer lortzen... baliteke lagatzea. Kirol bat praktikatzean, iruditzen zait lehia probatu beharreko zerbait dela; nik egin dut jada, eta lasai eta harro laga nezakeela uste dut. Azken finean, hau nire bigarren afizioa da; lehena semeekin jolastea da. Baina, aldi berean, oraindik hemen nago eta aukera hau aprobetxatu nahi dut; eman beharreko guztia emateko prest nago, bukaerara arte. Kirolean eta orokorrean dena probatzea gustatzen zait, barrutik bizitzea. Nahiago dut lagunaren artean partida bat jokatu telebistan ikusi baino, futbolearen benetan eskasa naizen arren... Honekin, berdin: nire aukeren barruan, saiatu egin nahi dut. Zorte apur batekin, nire antzeko norbait tokatzeko zait biharko hitzorduan.

Zein izango litzateke aurkari ideala?

Ni bezalako beterano *animatu* bat. 40 urte beteko ditut abuztuaren, baina kontua ez da adina bera. Kontua da nire adineko asko irakasleak direla, kirol honetan ibilbide luzea dutenak, lehia askoan aritutakoak... Horrelako norbait tokatuz gero, zaila ikusten dut. Baina, aldi berean, are gehiago motibatzen nau gogor entrenatzera: zaila da, baina ez ezinezkoa. Inportanteena parte hartzea animatzea da; animatu ezean, ez duzu ezer lortzen, ezta ondo pasatzen ere.

Beste ezer esatekorik baduzu...

Mallabiko herriari eskerrak eman nahi dizkiot kirol hauek ezagutarazten laguntzearen; Urriko Jaietako kickboxing gaua urteroko hitzordu bihurtuta, kasu. Bortitzak dirudite batzuetan, baina errespetua, diziplina eta bestelako balio handi batzuk transmititzen dituzte.

Datorren barikuan itxiko da Udaleku Ibiltarietako Izen-ematea

Uztailaren 12tik 17ra bitartean Udaleku Ibiltariak egingo dira Mallabian. 13 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude; zehazki, 2008 eta 2013. urteen artean jaiotakoei. Udalekuotako ekintzen bitartez, gazteen autonomia, elkarbizitza eta ingurumenarekiko harremana sustatzen saiatuko dira. Udalak herriko gazteak gonbidatu ditu "heziketara, harremanak eta esperientzia aberasgarriak" uztartzen dituen eskaintza horretaz gozatzen.

Izen-emateei dagokionez, hogeita bost plaza daude guztira. Mallabitarrek lehenetsuna izango dute, baina, kupoa bete ezean, inguruko herrietakoak batu ahal izango zaizkie. Iazko udalekue-tan, esaterako, Berrizko, Abadiño eta Ermuko gazteak izan zituzten lagun. Inskribatze-orriak Kultur Etxera joanda bete daitezke. Uztailaren 3a izango da izena emateko azken eguna.




Ondarroatik Getariara joan ziren iaz. T.P.

Irazu Aranburu garaile Durangaldeko Kopako bigarren hitzorduan, Berrizen

A.G.

Etxean jokatzeko lehen lasterketan, 7 Pagon, lortutako garaipenak eman zion Durangaldeko lehiaren baitako Mari Koparen lidergoa Aranbururi, eta aurreko asteburuan lidergoa berretsi zuen, Berrizko Amaraune irabazita. Ibilbide luzeako 21 kilometroak -1.050 metroko desnibel positiboarekin- 1:43:03ko den-

boran egin zituen, bigarren postuan sailkatu zen Josu Urrutia ondarrutarrari ia zazpi minutuko aldea aterata. Hirugarren postua Iñaki Goenaga soraluzetarrak lortu zuen. Mallabitarren garaipena Hiru Txikiak Trail taldeko Judith Hidalgo ermurrak kontatu zuen mikrofonotik; *speaker* lanetan estreinako aldia izan zuen.



Aranburu, helmuga gurutzatzean. PULSO



Hidalgo, elkarrizketatzaile. PULSO

LGTBIQA+ kolektiboari ilkusgarritasuna emateko proiektzioa domekan

ZG Hedapena egitasmoak Zinegoak jaialdian parte hartu duten film laburrak eramango ditu Euskal Herriko berrogei herri-tara; eta hilaren 28an Mallabian txanda izango da. Proiektzioak 12:30ean hasiko dira, Kontzeju-zarran, eta filmak jatorrizko bertsioan emango dira, behar denetan euskarazko zein gaztelarazko azpizdatziekin.

Berdeguneen aberastasunari balioa emateko beharra azaleratu dute

Herriguneko landarediaren kudeaketa aproposa egiteko, egokiena eta eraginkorra horrekin lotutako tokian tokiko ordenantza egitea izango litzatekeela uste du Ander Oñate Ezenarro lorezainak

Ubane Madera Zangitu GSORALUZEN Landaredi urbanoaren ezaugarriak, gaur egungo egoera, kontuan hartu beharrekoak, gomendioak eta beste hizpide eta aztergai izan zituzten joan den zapatuan egin zuten ibilaldi gidatuan.

Ander Oñate Ezenarro lorezainak gidatuta, herriguneari hasi, SAPAraino joan eta Ezo-zibidetik buelta emanda, Estaziño-bidegorri inguruan bukatu zen Baso Biziak elkarteak antolatutako ekimena.

Talde txiki baina esanguratsua batu zen ekimenara, gehienak udal ordezkariak izan baitziren, alkatea zein oposizioburua tarteko, eta guztiek adi-adi entzun eta partekatuta zituzten jakintzak zein iritziak.

Aukerei balioa eman

Gaur egungo egoeratik hasita, Ander Oñatek herriko berdeguneen aberastasunari eta aukerei balioa eman behar zaiela azpimarratu zuen, oparoa baita Sorluzeren herriguneari bertan dagoen landaredia, izan zuhaitzak, zuhaixkak, landareak zein loreak; zer esanik ez ibaien edo haren bazterrean dagoen aniztasuna.



Ibaiko pasealekuko lorategiko krokosmiaren indar inbaditzaileari buruzko azalpenak ematen.



Estaziñoako likidanbarrari balioa emateko proposamena azaltzen. U.M.Z.

Azken horretan, adibidez, Ugarresiaren berezitasuna aipatu zuen. Haltzak, urkiak, makalak... denetarik ditu, denak bertakoak; animalien babesleku garrantzitsu da, eta ufala baletor, ur handien eusle edo bideratzaile ere bai. Baina, ibaiko beste arbola askoren kasuan moduan, zainketa ere eskatzen dute Ugarresikoek, batik bat, gertuko etxeetako bizilagunekiko bizikidetzat hartuta.

Herriguneko aukeren artean, berriz, Estaziñoako likidanbarra jarri zuen Oñatek adibidetzat. Hari eta haren inguruari balioa emateko proposamena egin zuen lorezainak, erraz samar gauzatzeko modukoa: zuhaitzaren bueltan jarlekua jarri eta haren gerizpea txukunduta, parkera doazenek edo autobusaren zain daudenek asko baloratuko eta eskertuko luketen lekua egokitu. Ideiarekin bat egin zuten askok.

Basoguneko herrian bertan

Aukerekin segituz, adituak herriguneari bertan dauden naturguneei eta basoguneei balioa ematea ere garrantzitsutzat jo zuen, haien erabilera eta aberastasuna indartzeko. Adibidez, Ezoziko bideko parketik gora dagoen zuhaitz arteko paseoa gehiago ezagutaraztea eta SAPAn dagoen parke pribatua herritarrendako egokitzea.

Kanpoko inbaditzaileak

Txanpon berde horren beste aldean, berriz, espezie inbaditzaileen gaia azaleratu zen. Modak, ezjakintasanak edo kontrol-zaintzarik ezak ekarri ditu kanpoko espezie ugari, eta askok bertakoei espazioa kendu eta kalte egiten baitiote hemengo ekosistemari.

Askok daude hemen inguruan; eta, askotan, hemengoak direla pentsatu izan da, baina ez da horrela. Parke ugarietan dauden

platanondoak, adibidez, kanpoko inbaditzaileak dira. Urte luze erabili dira parkeak apaintzeko, eta, gehienetan kontrolatuta dauden arren, bertakoen espazioa jan ohi dute.

Beste espezie asko, ordea, kontrolatzeko kanpo daude, eta, beste hainbat kasuan, gainera, kontrol-zaintza hori zaila da. Akazien kasuan, adibidez, bat kendu eta hamar irteten dira, eta horiek bai dira ugariak Sorluzen.

Guztia kontuan hartuta, proposena tokian tokiko ordenantza bat egitea da. Halaxe uste du Oñate lorezainak, eta baieztapen horrekin bat egin zuten Baso Biziak elkarteak kideek ere.

Ordenantza propio batekin, Sorluzeko Udalak herriko berdeguneak hobeto aurreikusi, antolatu eta kudeatzeko aukera izango lukeela uste dute, baita eskumena herriz gaindiko beste erakunde batena den kasuetan ere; adibidez, ibaiaren kasuan. Ura Agentziarena da ibaiaren eskumena, baina erakunde horrek ez du bertako landarediarekin lotutako jarduerarik egiten, eta, ondorioz, adibidez, ibai bazterrak *Fallopia* landare inbadituta daude.

Sorluzen zuhaitz eta landare aberastasun benetan oparoa dagoela azpimarratu dute

Espezie inbaditzaile erasokorrek ahalik eta lasterren kontrolatzeko beharra dago

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENA astekarian edo
www.barrena.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 08:30-11:00 eta 15:30-20:30
Larunbatak: 08:30-13:30
Igandak: 08:30-14:30

Gosariak, oja, jentsa, pastak, bombak...
Etxera emateko zerbitzua
Tel: 943 75 24 43

Txoko

Eguneko menuak, plater konbinatuak, hamburgerak, ogitarlekak, raziok, pizza, gozaria...
Enkarguak egiten dira
Tel: 943 75 17 08

SORALUZE MOTOR

Mendiola ind. 13 Sorluzen

474 556 817 - 943 75 21 38

Enkarguak hartzen ditugu
• Gertuko gauduz
• Etxeko tripaki, bielata, salbitza eta mingaina

Etakuruetan 3
Telefonoa: 943 75 21 75

KM design

Disenatu eta Fabrikazio lanak

Sukaldeak
Horma-amaioak
Logelak
Zoruak
Atalak...

943 74 99 85

Pol. Amilagoa 5
BERGARA

Arotzeria lanak oro har
Instalazioak

www.kmdesign.es

MENDIZABAL
okindegia

Oja - Pentsa - Gosariak

Astelehenetik ostegunera:
08:00 - 13:00
17:00 - 19:30
Ostiralak
08:00 - 13:00
Larunbatak
08:30 - 13:30

Kalebarren 10
Tel: 943 75 13 99

MGS Seguros

Verónica Galarraga
Gertuko eta segurua

Astelehenetik ostiralera:
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 13
665 744 055

OSTIA HARATEGIA

Enkarguak hartzen ditugu
• Gertuko gauduz
• Etxeko tripaki, bielata, salbitza eta mingaina

Etakuruetan 3
Telefonoa: 943 75 21 75

Emakumeon* Ahalduntze Eskolaren udaberri udako programazioa, "oso arrakastatsua"

Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroak jarraipena izango du udazkenean eta neguan

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Atzo, eguena, azken ordukorik ezean, emakumeen topaketa egin zuten; Soralezeko Emakumeon* Ahalduntze Eskolaren udaberri eta udako programazioaren azken ekintza.

30 bat emakumek emanda zuten izena; emakumeen bosgarren topaketa izan zen, eta, jolasa ardatz, udaberri eta udako programak emandakoa errepasatu, aztertu eta baloratu eta aurrera begirakoak proposatzea zen helburua.



Zoru pelbikoa indartzeko tailerreko hainbat partaide, Tolarekuan. MAITE QUINTANILLA

Mendia, batukada, zinema...

Soraluzeko Emakumeon* Ahalduntze Eskolaren hiruhileko honetan, zoru pelbikoa indartzeko tailerraren bigarren edizioa, *Jarduera fisikoa menopausian izenburuko* hitzaldia, *Maspalomas* filmaren emanaldia eta lehen mendi irteera egin dituzte; azken horren kasuan, San Andres-Txurruka ibilaldia egin zuten.

Horiez aparte, hiruhilekoa atzo agurtu zuten arren, batukada feminista tailerra ere antolatu dute Ahalduntze Eskolaren baitan, eta ekimen hori ere arrakastatsua izaten ari da, 25etik

gora emakumek parte hartu dute-eta tailer horren lehen saioan, joan den asteburukoan. Gogoan izan behar da uztailearen 11-12ko asteburuan egingo dutela bigarren saioa eta uztailearen 19an, berriz, kalejira egingo dutela jai-bezperako asteburuko ekitaldien baitan.

Udazkenean eta neguan

Osterantzean, Maite Quintanilla zinegotziak esandakoaren arabera, zoru pelbikoa indartzeko tailerrak "arrakasta handia" izan du. Hura indartzeko ari-

tez aparte, teoria asko eman dute, zelan landu, zelan zaindu eta banakako esplorazioa eta aholku konkretuak ere eman dituzte. Lehen edizioa eguerdian egin zuten, oraingoa goizean, eta dagoeneko ari dira hirugarrena antolatu nahian, udazken eta negura begira, arratsalde partean egiteko.

Quintanillak gaineratu duenez, mendi irteera "oso ondo baloratu zen", eta kasu horretan ere ari dira bigarrena prestatzen, hurrengo hori irailean egiteko: *Lau ermiten* ibilbidea.



Nothingam Miedo taldea, bandera eta guzti. AITOR BARRUTIA

Asteburu honetan hasiko dira kanporaketak areto txapelketan

U.M.Z. SORALUZE

Bukatu da aurtengo areto txapelketaren lehen fasea. Salabardo taldea geratu da lehen postuan A taldean, 13 punturekin, eta Jubiletak izan da B taldean onena, 18 punturekin. Hori horrela, biak zuzenean pasatuko dira kanporaketa fasera.

Gainontzeko ekipoei dagokienez, elkarren kontra jokatu beharko dute jaiak bitarteko asteburuetan, eta partiduak hil edo bizikoak izango dira, galtzen duen taldea txapelketatik kanpo geratuko baita.

Asteburu honetan hiru egunez jokatuko dituzte partiduak, eta datorren asteburuan, berriz, atsedean izango dute.

Asteburukoak

Barikua

- 19:00 Balsiqueños vs Marokoarrak Gara
- 20:00 LMA vs Eibartarrak
- 21:00 Los Chamacos vs Goenetxetxo Prime

Zapatua

- 10:00 Kastakuak vs Fatal Tigers
- 11:00 El Rincon vs LTC

Astelehena

- 23:00 Manchester Pity vs Nottingham Miedo

Saria pilota elkarteko jokalariek guztientzat



EGOITZ UNAMUNO LOIDI

Joan den bariku arratsaldean, Soralezko Pilota Elkarteko hogeita hamar jokalariek 2025-2026ko ikasturte amaierako finalak jokatu zituzten Arneko udal pilotalekuan. Dotore, zuri jantzita, gogotik jokatu zuten, eta, gainera, ikasturte amaiera izaki, galdu zein irabazi, pilotari gazte guztiek jaso

zuten saria: kopa eta ogitarteko bana. Olaitz Lasa elkarteko presidenteak eskerrak eman zizkien jokalariei, gurasoei eta laguntzaile izan diren erakunde guztiei, eta datorren ikasturtean ere pilota eskolak ematen jarraitzeko asmoa berretsi zuen. Dagoeneko zabalik dago bertan izena emateko epea.

Bigarren eskuko elkartasun azoka zapatuan

Zapatu goizean, bigarren eskuko azoka egingo dute Plaza Barrizan, eta bertan salgai ipiniko dituzte bigarren eskuko arropak, zapatak eta umeentzako jolasak. Duela hilabete batzuk Osintxun egin zuten moduan, batzen den dirua Palestinara bideratuko dute; zehazki, *De Gaza al Mundo* proiektura. Antolatzaileek azaldu dutenez, "proiektu solidarioa da eta gaur egun 35 familia sostengatzen ditu Gazan, guztira 300 bat pertsona. Bidalitako dirua oinarrizko beharri-zanak asetzeko erabiliko dute".

Azoka herritar talde batek antolatu du eta, hain zuzen ere, 10:00etatik 14:00etara bitartean izango da zabalik.

2025-2026ko batzar orokorra, eta 2026-2027 urte berezia

Datorren eguenean, uztaileak 2, urteko batzar nagusia egingo du Soralezko Futbol Taldeak. Tolarekua aretoan egin dute hitzordua, eta bertaratzeko dei egin dute. 19:00etan da bigarren deialdia; beraz, orduantxe hasiko da.

Gai-zerrendan ohikoak dituzte aurreikusita: kirol kontuak, diru kontuak eta kezkak eta galderak.

Edozein modutan, datorren denboraldia berezia izango da herriko futbol taldearentzat. Diotenez, "2026-2027ko denboraldia prestatzen" ari dira, "ilusioz beterik. Denboraldi berezia izango da, Soralezko FTren 50. urteurrena ospatuko dugulako".

25. urtez bizi-bizi segitzen du Asierren eta Iñakiren izena eta izana daraman txapelketak

Bihar, zapatua, 15:00etan egingo dute 25. urteurreneko bazkaria, Bizimina elkartearen menuarekin. Lehenago, trikipoteoa; gero, ekitaldia; eta, amaitzeko, musika eta barru txapelketa izango dira

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Asier Herizen eta Mikel Ostolazaren ideia batetik jaio zen San Andresko Pilota Txapelketa. Bi lagunek Elosuko frontoian jokatzen zuten pilotan. Baina San Andreskoa egin zutenean, pentsatu zuten Elosuko frontoia bezala San Andreskoa ere afizionatuentzako tamainakoa zela, eta txapelketa antolatzea bururatu zitzaizen. Ideia gauzatzeko, bidelagun ezinbesteko izan zituzten Kultura zinegotzi zen Iñaki Saez eta Unai Larreategi.

Txapelketako bikoteak zozketaz antolatu zituzten, maila eta adin askotarikoak elkartuz, harremanak sortuz edo indartuz. "Txapelketaren ezaugarri garrantzitsuena horixe dela esango genuke", diote oraingo antolatzaileek. Ekainaren 16an hasi zen, eta finala 2001eko jaien txupinazo egunean izan zen. Elkarrekin afalduz borobildu zuten pilota txapelketa jaioberrria.

Izena aldatu, izanari eutsi

Baina 2001eko irailaren 8an auto istripua izan zuten pilota txapelketaren lau sortzaileetako bik. Asier Heriz eta Iñaki Saez hil eta Irantzu Benito larri zauritu ziren Avilan kartzelatuta zegoen Lourdes Txurruka herrikidea bisitatzera zihoazela. Horrek eragin zuen saminaren ondotik etorri zen Asier Herizek eta lagunek sortu zuten pilota txapelketaren izen aldaketa. Asierren eta Iñakiren Omenezko Pilota Txapelketa izena ipini, sorrerako izanari eutsi, eta 2002tik bizi-bizi mantendu dute gaur eguneraino haien ondorengoek -beheko argazkian-.

Halakoak eta beste gogoratuko dituzte bihar, pilota txapelketaren 25. urteurrenaren herri-bazkarian. 15:00etan elkartuko dira otordurako, eta trikipoteoa, musika eta barru-txapelketa ere izango dituzte, eguna borobiltzeko.



Asier Heriz jokatzen, Ikastolan.



2001eko ekainean hasi zen txapelketako partaideak eta irabazleak.



Asier Herizen eta Iñaki Saezen izena jarrita, pilota txapelketa jokatu zen lehen aldia, 2002an.



2010ean Araneke frontoian jokatu zen finaleko argazkia.



Koldo Heriz, Mikel Argarate, Xabier Elizburu eta Argoitz Ariznabarreta, oraingo antolatzaileak.



Ikusle mordoia San Andresen, 2018an. FERNAN OREGI



2024an margotu zuten murala San Andresko frontoian.

"Soraluzekoa gaitasun handiko abesbatza da, nahiz eta txikia izan"

VICTOR GALVAN EZOZIKO AMA ABESBATZAKO ZUZENDARIA

2025ean ordezkapen bat egin ondoren, irailean Ezoziko Ama Abesbatza zuzentzen hasi zen Victor Galvan; uztailaren 4an, udako kontzertua emango dute

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Victor Galvan (Valladolid, 1987) Ezoziko Ama Abesbatzako zuzendari berria da. 2025eko irailetik dihardu kargu horretan, eta Soraluzeko abesbatzarekin lehen harremana 2025eko urtaririlean izan zuen; Aitor Garitano ordezkatu zuen orduan. Hilabeteotan, berriz, buru-belarri dabilta uztailaren 4an taularatu dute udako kontzertu "freskoa" prestatzen.

Zelakoa izan zen abesbatzarekin lehen kontaktu hura?

Oso ondo joan zen. Potentzial handia zutela ikusi nuen. Esan nien gaitasun handiko abesbatza dela, nahiz eta oso handia ez izan. Maisu ona izan dute, Aitor, urteotan lan bokal handia egin du; beraz, oso herentzia ona jaso dut. Kurioso da, beldur apur batekin nentorrelako Gipuzkoa sakon honetara, ez baitut euskaraz hitz egiten; bi berba bakarrik esateko gai naiz. Baina uste dut eurek ere eskertu dutela nire kultura, nire izateko modua eta nire ikuspuntua ekartzea. Kanpokoen esperientziak esploratzea aberasgarria dela uste dut.

Soraluzekoaz aparte, Lasarteko eta Valladolideko abesbatzak ere zuzentzen dituzu, ezta?

Lasarteko abesbatza orain dela 3 urtetik zuzentzen dut. Nagusiak dira abeslari guztiak, eta oso pozik gaude elkarrekin. Bestalde, XYK Singers taldearekin ere badihardut. Emakumeen talde bokala da hura, eta, orain dela 14 urte Valladoliden neuk sortu nuen arren, gaur egun, taldekide asko, ni barne, kanpoan bizi gara. Oso noiz-behinka elkartzen gara, akaso 3-4 hiletik behin, astebeterako, baina oso modu intentsiboan lan egiten dugu, goizetik gaue-ra arte. Haiekin lan profesio-



Victor Galvan, gitarraekin, atzean abesbatza duela, astelehenean, entsegu aurretik. U.M.Z.

nalagoa egiten dut, zelanbait esatearren.

Nora proiektua ere azaltzen da zure izenarekin lotuta; zer da hori?

XYK Singers konpainiaren azken ikuskizuna. 3 urtean ibili gara *Nora proiektua*-n lanean, eta maiatzean estreinatu genuen, Valladolideko Kaleko Antzerki eta Arteen Nazioarteko Jaialdian. Primeran ari da funtzionatzen; sarrerak agortzeaz aparte, Espainiako zein atzerriko programatzaileen interes erabatekoa erakarri du, berritzailea delako, askotariko arte eszenikoak uz-

tartzen baititu: kantu polifonikoa, antzerki fisikoa eta dantza garaikidea.

Halakorik ekarriko duzu Soraluzeko abesbatzara? Dantza? Performancea?

Niretzat, musika korala herri edo zaletasun batetik harago doa. Pertsona bat, abesbatza batean hasi eta lehen aldiz harmonia entzuten duenean, Eric Withacre konpositoreak zioen moduan, mundua zuri-beltzean ikusetik teknologian ikustera pasatzen da. Abesbatzako abeslariak kantari baino gehiago bihurtzen dira, bizitzaren zati bat eskaintzen diote abesbatzari; maitemintzea bezala da, droga txiki moduko bat da. Kantua sentimenduak espresatzeko modu bat da. Eta hori guztia lantzeak eragiten du ikusleei aurkezten zaion horrek indar handiago hartzea. Sora-

luzeko abesbatzarekin oraindik ez dut halakorik egin, poliki-poliki lantzea gustatzen zaidalako. Udako kontzertuan horren printzato bat ikusiko da, hala ere. **Zenbat urte daramatzazu taldeak zuzentzen?**

22 urte daramatzat abesbatzak zuzentzen; hala ere, orain ari naiz karrera ikasten, Musikenen; aukera hori izanda, animatzea erabaki nuen. Bi urte daramatzat eta bi falta zaizkit. Oso pozik nago, oso nota onekin, eta, nahiz eta lehengotik ibilbide luzea izan, seguru nago asko ikasiko dudala.

Soraluzera bueltatuz, zelako kontzertu izango da uztailaren 4koa?

Egitaraua askotarikoa izango da. Munduko leku askotako musikarekin osatuta. Euskarazko bi kantu ere baditu; bat, nik egindako moldaketekin, Mikel Laboaren *Txoria txori*, gitarra eta abesbatzarendako. XYK Singers taldeko hainbat kideekin egin nuen; izan ere, urte asko daramatzat Euskal Herria, hemengo musika, kultura... maitatzen eta hemen abesten. Orain, nik egindako moldaketa hori Soraluzeko abesbatzari ekarri diot, opari modura-edo, eta uste dut asko eskertzen dutela. Euskarazko beste pieza *Maitia nuzira* da. Bigarren letra eta guzti abestuko dugu, dagokion euskara ahoskerarekin. Finlandiako pieza bat ere badago, hermina transmititzen duena, norbere jaioterriaren oroitzapena transmititzen duena. Badaude beste pop pieza batzuk: Elvis Presley, Leonard Cohen... Ameriketako pop kantetatik hasi eta kantu tradizionalagoetaraino doan egitaraua dauka.

Gaur [astelehena] Madrilen kolaborazio bat egitetik etorri zara, proiektu asko dituzu esku artean, eskarmentu luzea zuzendari moduan... Zurea ez da curriculum handia Soraluzekoa moduko abesbatza txiki batendako?

Ezta gutxiago ere. Soraluzek ez du merezi zuzendari kaskarragoa txikiagoa izatearren; kontrara, Soraluzek merezi du dagoen onena.

"Soraluzeko abesbatzak merezi du dagoen zuzendaririk onena"

Datorren martitzenean hasiko dira aurtengo Gazte Udalekuak

Datorren martitzenean, ekainaren 30ean hasi eta uztailaren 2an, eguena, bukatuko dira aurtengo Gazte Udalekuak. Jendetsuak izango dira, 12-16 urte bitarteko 62 gaztek eman baitute parte hartzeko izena. Lau hezitzaile ibiliko dira gazteekin. San Andres auzoko aterpetxean pasatuko dituzte gauak; eta egunen osagarri, herritik kanpora irteerak ere egingo dituzte, Mutrikura eta Elorrioko igerilekuetara, hain justu ere.

Udaleku irekiak, berriz, uztailaren 6tik 17ra bitartean izango dira. 3 urtetik 12ra arteko haurrei (2014 eta 2022 urteen artean jaiotakoek) zuzenduta daude azken horiek.

Bake epailea behar da Soraluzerako eta zabalik da izen-ematea

Atzo, eguena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren arabera, Bake Epailea eta haren ordezkaria behar dira. Margarita Ibargoienek bete du kargu hori azken urte luzetan, eta haren lekua betetzeko izendatu behar da berria. Izangaik udalaren Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira, 15 laneguneko epean. Ez da titulazio berezirik behar; eta, jarduera profesional edo merkataritzakoak egiteko bateragarritasuna dute, beti ere inolako aholkularitza juridikorik ekartzen ez badute, eta jatorriz, bere alderdikierarik eza edo independentzia ekidin edo murrizten ez badute, ezta betebeharrak judizialak betetzea galarazten ez badute ere.

Udako ordutegia Txurritxun, eta, ohikoa Todo a 100 saltokian

Txurritxu goxotegitik jakinarazi dute eurak ere ari direla udako ordutegiarekin; asteleheneetik barikura, 08:30etik 13:00ak arte eta 17:00etatik 20:30ak arte; zapatuetan 08:30etik 14:00ak arte eta domeketan 08:30etik 14:30era.

Todo a 100 saltokian, berriz, ohikoari eutsi diote: asteleheneetik barikura, 09:00-13:00 eta 17:00-20:00 eta zapatuetan, 09:00-13:00.

Xabi Solano eta Sune, Debako bandarekin batera

Debako Musika Bandak "gogo handiz eta emozioz" prestatutako udako kontzertu berezia iragarri du uztailaren 4rako; Sune eta Xabi Solano musikari ezagunak izango ditu bidelagun oholtzan. Emanaldia zumardiko karpan egingo dute, 22:30ean, doako sarrerarekin

Izaro Aulestiarte

"Kontzertu ahaztezina izango da, hasieratik amaierara dantzan eta abesten gozatzeko modukoa". Hitz horiekin laburbildu dute Debako Musika Bandako kideek uztailaren 4an, larunbatez, zumardiko karpan egingo duten emanaldia. 22:30ean hasita, 50 bat musikari ariko dira oholtzan; ohiko taldekideei Euskal Herriko musikagintzan sona handia duten bi gonbidatu batuko zaizkie, gainera: Josune Arakistain Sune eta Xabi Solano trikitilariak.

Herriko musikariek azaldu dutenez, bandak bi urtean behin antolatzen du udako kontzertua. Baina aurtengoa ezohikoa izango da. "Hasieratik genekien proiektu anbiziotsua zela eta normalean baino oihartzun handiagoa eduki zezakeela. Baina kontziente gara horrelako musikari garrantzitsuekin kontzer-

tu bat eskaintzeko aukera ez dela errepikatuko; beraz, gogo handiz eta emozioz ari gara prestatuta lanetan".

Urte hasieran ekin zieten antolakuntza lanei. Suneren eta Solanoren baietza jaso ondoren egin zituzten ondorengo urratsak: data adostu, kankak aukeratu, moldaketak eskatu, Udalarekin hitz egin, soinu eta argi ekipoa lotu, aldagelena kudeatu... Aitortu dutenez, erronka handia izan da, adibidez, bandaren ohiko soinua trikitiarekin uztartzea eta guztiek elkarrekin interpretatzeko 13-14 euskal kantadun erreperatorioa osatzea. "Abestien moldaketan dago gaikoa. Beraz, piezak hautatutakoan, Juanma Saez, Jimmy Bidaurrera eta Josu Salegi musikariei eskatu genizkien moldaketak; hirurek ezagutzen dute Debako banda, eta lan ederra egin dute".



Bandako musikariak, udako kontzertua iragartzeko kartelarekin, zumardian. N.B.A.

Elkarlanaren eta hilabetetako lanaren emaitza izango da, bada, hilaren 4ko ikuskizuna. Prest dute emanaldia eta egingo dago bertaratzeko gonbidapena bera

ere. "Animatu eta etorri kontzertuaz gozatzera, ondo pasako dugu eta", gaineratu dute.

Bandak Debako Udalaren, Laboral Kutxaren eta Danobat-en

dirulaguntza jaso du hitzordua antolatzeko. Nolanahi ere, erri-fak saltzen dihardute ekimena finantzatzeko asmoz. Uztailaren 5ean egingo dute zozketa.



JOSU SALEGI MUSIKARIA ETA KANTEN MOLDATZAILEA

"Oraingoan, bi abesti bateratu ditut moldaketa batean"


"Formatu handiko beste lan batzuk ere egin izan ditut; duela urte batzuk, adibidez, Debako bandarentzat eta jazz laukotearentzat moldaketak egin nituen, big band formaturako ere idatzi izan dut... Bi abesti bateratu ditut moldaketa batean, bakoitza oso desberdin planteatuz: Tapia eta Leturiaren *Wafa*—Desgaraian taldearen moldaketa hartu dut erreferentziatza, lan nagusia orkestratzea izan da, harmonikoki ez dut askorik aldatu— eta *Debako herriari*—goitik behera aldatu dut, melodia errespetatuz—. Nahiko errepikakorra da egungo musika, harmonikoki oso sinplea. Hori oinarri hartuz, ahal den heinean, aberastea izan da erronka".



ITZIAR LARRAMENDI MUSIKA BANDAKO LEHENDAKARIA

"Benetako ikasketa prozesua izan dela sentitu dugu taldean"

"Kontzertua antolatzea benetako ikasketa prozesua izan dela sentitu dugu taldean. Hilabetetako lana izan da, eta, ohiko emanaldiek ez bezala, honek beste dimentsio bat hartu du. Nire ustez, guztia koordinatzea eta finantzaketa lortzea izan dira erronkarik handienak, eta lan handia dago atzean: bandaren eta musikari gonbidatuen agendak bateratu, proiektuaren aurkezpenak egin, atea jo... Orain arte ezagutzen ez genuen mundua da, baina prozesuak gauza handiak egiteko gai garela erakutsi digu. Talde gisa dugun antolakuntza eta lan egiteko modua sendotu ditu, eta argi utzi digu erronka handiei ere aurre egin diezaiekegula".



FERNANDO 'FEFE' URAIN MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIA

"Bi artista hauekin aritzeak motibazio berezia ematen digu"

"Sune eta Xabi Solano elkarrekin ikusi nituen emanaldi batean, eta, haien arteko elkarlana ikusita, bandarekin zerbait berezia egitea bururatu zitzaidan. Zorionez, aurrera eramatea lortu dugu. Erronka handiena, ziurrenik, egokienak iruditzen zitzaizkigun abestiak hautatzea izan da, eta kanten moldaketak bandarentzat egokiak izatea eta kalitatezko emaitza lortzea ere garrantzitsua izan da; goraipatzekoa da kanten konponketekin egin duten lana. Prozesu honek erakutsi digu bandak oso modu naturalean egin dezakeela bat edozein musika-estilo eta artistarekin, eta ibilbide handiko bi artista horiekin aritzeak motibazio berezia ematen digu".



JOSUNE ARAKISTAIN 'SUNE' MUSIKARI GONBIDATUA

"Debako bandarekin jotzea berezia izango da niretzat"

"Gustatzen zait konfort-zonatik atera eta nire abestiak beste formatu batean entzutea. Aberasgarria iruditzen zait, eta hau egin izan dudana beste aldi batzuetan ere beti erakarri izan nau formatuak. Abesti batzuk errazago moldatzen dira formatu batera edo bestera, baina, aldi berean, erronka bat da zuk sortu eta imajinatu dituzun abestiak beste formatu batera egokitzea. Erronka horrek egiten du polit, hor dago magia, horrek bihurtzen ditu berezi horrelako kontzertuak. Debako bandarekin jotzea berezia izango da, baina nire urduritasun maila ere altuagoa izango da, inporta zaidan jende gehiago egongo delako kontzertuan".



XABI SOLANO MUSIKARI GONBIDATUA

"Gau polita eta gogoangarria izango da"

"Egia esan, banda batekin aritzeak dena aldatzen du musikalki, eta oso polita da norbere kankak hain ezberdin ikustea, niri asko gustatzen zait. Ez da hain erraza abestiak banda formatura moldatzea, instrumentu pila bat daudelako bandan eta bakoitzari bere lekua eman behar zaiolako; eta, horregatik, horretan aritzen direnak artista hutsak iruditzen zaizkit. Askotan jo izan dut Deban, Etzakitekin, Esne Beltzarekin... eta kristoren giroa egoten da beti. Beraz, oraingoan ere horixe espero dut. Gainera, jakinda Debako banda oso maitatua dela herrian, gau polita eta gogoangarria izango da".

Sormenaren Kabia beka irabazi du Maddi Astigarraga ilustratzaile zientifikoak

Alkizako Udalak sustatutako egonaldi artistikoa egin ahal izango du udazkenean

Izaro Aulestiarte

Maddi Astigarraga Bergararen (Deba, 1997) *Hartu-sortu-eman* izeneko proiektuak irabazi du 2026ko Sormenaren Kabia beka. Alkizako Udalak 2018an sortutako egitasmoa da, eta, antolatzailerik adierazi dutenez, beka horren bitartez hainbat artistak "naturgune paregabea hausnartu, esperientziak partekatu eta lan egiteko aukera" izan dute dagoeneko. Bada, debarrak udazkenean egingo du ilustrazio zientifikoa, herri-ezagutza eta natura-ondarea uztartuko dituen egonaldi hori, Alkizan, eta emaitza infografiaz osatutako erakusketa batean aurkeztuko du gero.

Aldez aurretik, gainera, topaketa bat antolatuko dute, Alkizako herritarrek eta ilustratzaileak elkar ezagutzeko aukera izan dezaten.

Epaimahaiak bereziki nabarmendu du deialdi horretan jasotako proposamenen "kalitate handia, baita hautagaien curriculum eta ibilbide artistikoen maila ere". Era berean, aurkeztutako diziplina artistikoen aniztasuna eta proiektuen originaltasuna azpimarratu dituz-



Maddi Astigarraga ilustratzaile zientifikoa. MARTIN LORES

te: "Hautaketa prozesua bereziki zaila izan da".

Emaitza, erakusketa batean

Astigarragaren *Hartu-sortu-eman* proiektuak ilustrazio zientifikoa du ardatz. Eta bekaren sustatzaileek azaldu dutenez, helburua herri-ezagutza eta ezagutza zientifikoa uztartzea izango da, Alkizako ingurunea irudiaren bidez aztertuz eta dokumentatuz. "Horretarako, artistak bertako natura-ingurunea behatu eta erregistratuko du, landareak, animaliak eta inguruko bestelako ele-

mentuak ilustratuz. Aldi berean, herritarren testigantzak, jakintzak eta oroimenak bilduko ditu", zehaztu dute. Bildutako informazioa infografia eta poster ilustratuen bidez antolatuko dute gero, "ezagutza zientifikoa eta herri-ezagutza elkarriketan jartzeko". Aipatu dutenez, egonaldiaren amaieran, proiektuaren emaitza infografiaz osatutako erakusketa batean aurkeztuko dute. Bertan, Alkizako ingurunea, espezieak eta komunitatearen jakintza partekatua izango dira ikusgai, ilustrazioaren bidez.



Lizar-adarrak, San Roke kaleko atarietan. DEBAKO SENDABELARREN TALDEA

Usadio zaharrei eutsiz, lizar-adarrak jarri dituzte San Roke kaleko atarietan

I.A.

Azken urteetan bezala, Debako Sendabelarren Taldearen laguntzarekin, San Roke kaleko atarietan lizar-adarrak jarri dituzte aurten ere San Joan Egunaren bueltan, etxeak eta bertako bizilagunak babesteko. Gogorarazi dutenez, "ohitura oso aspaldikoa izan arren, Eduardo Galarragak Iturkaleko atarietan jartzeari utzi zionetik, oso etxepe gutxitan mantendu da ohitura".

Usadio zaharrak berreskuratze ahaleginean, gainera, Sendabelarren Taldeko kideek San Joan ukendua ere prestatu dute. "Inguruko sendabelarrekin egin dago eta azaleko gaitzei aurre egiteko balio du", azaldu dute.

Hainbat belar ditu ukenduak, hala nola Santixo belarra, erromeroa, izpilikua, apo belarra, malba, ilena, plantaina, kamamila eta pasmo belarra.

San Pedro bezpera, igandean

Bailarako hainbat herritan San Joan bezperako suak eta ekitaldiak murriztu edo egokitu egin dituzte asteon, egunotako tenperatura altuek eta sute arriskuak eraginda. Dena den, azken orduko aldaketarik ezean, etzi, hilak 28, San Pedro bezpera ospatuko da Deban; 21:00etan hasiko da txistularien kalejira eta 22:00etan izango da zahagi-erretzeak eta dantzak osatutako ikuskizuna, Plaza Zaharrean.

Jai giro ederrean agurtu du ikasturtea Debako hezkuntza komunitateak



LUZARO



LUZARO

Joan den larunbatean, ikasturtea amaitzeko egun osoko jaiak ospatu zuen Luzaro ikastetxeak, Zubi Guraso Elkartearekin, Kolore Anitzekin eta Udalarekin lankidetzan, eta ekimenak izan duen harrerarekin pozik daude antolatzaileak. "Oso gustura ibili ginen, giro ederra sortu zen eta ondo irten zen dena. Bazkarian, adibidez, 370

bat lagun bildu ginen, ikasle, guraso, irakasle eta irakasle ohi ugari ere tartean; gainera, jendeak asko lagundu zuen guztia txukuntzen eta jasotzen. Kamiseta pila bat saldu genituen, musikaz alaitutako uneak izan genituen... Pozik gaude festak eman duenarekin".

"Entrenatzen jarraitzea eta markak pixkanaka hobetzen joatea da helburu bakarra"

ELENE BEITIA AZKOITIA 18 URTEZ AZPIKOEN EUSKADIKO TXAPELDUNORDEA 400 METROKOAN Debarak denboraldi bikaina egin du aurten; orain arteko markarik onenak ez ezik, zilarra ere eskuratu du 18 urtez azpikoen Euskadiko Atletismo Txapelketan

Izaro Aulestiarte

Eibarko Klub Deportiboko Elene Beitia atletak (Deba, 2010) joan den asteburuan Arrasaten jokatutako Gipuzkoako Atletismo Txapelketa absolutuan amaitu du aurtengo denboraldia. Pozik dago hilabeteotako jardunarekin, hainbat probatan orain arteko emaitzarik onenak lortuta; hori gutxi ez, eta zilarrezko domina bat kolkoratu du.

Zure lorpenak ez dira oharkabeen pasa denboraldi honetan. Besteak beste, txapelkunde izan zinen maiatzaren 9an Gasteizen jokatutako 18 urtez azpikoen Euskadiko Atletismo Txapelketan, 400 metroko proban. Nola gogoratzen duzu une hura, aste batzuk geroago?

Oso ongi joan zen dena, eta pozik nago benetan. Orain, aste batzuk pasata eta dena lasaiago ikusita, oso oroitzapen politak ditut. Ez nuen halakorik espero; txapelketa horietan maila handia egoten da eta oso zaila izaten da ezer aurreikustea.

Gogorak izan al ziren txapelketera joan aurreko prestaketa lanak?

Egia esan, ez bereziki; nahiko modu erregularrean egiten ditugu entrenamenduak, eta lehiatu beharreko probetara egokitzen ditugu saioak azken astean; batez ere, irteerak, indarra...

Zilarrezko domina eskuratzeaz gain, zure markarik onena ezarri zenuen Gasteizen, ezta?

Bai. Urduri samar nengoen, baina marka hobetzea lortu nuen: 1.01,62ko denborarekin joan nintzen, eta 1:00,78 egitea lortu nuen. Gainera, ondoren, ekainaren 7an Durangon jokatutako Euskadiko Atletismo Txapelketa absolutuan ere nire marka onena egin nuen, baina 200 metroko lasterketan: 26,56.

Emaitzei dagokienez, hau izan al da zure ibilbideko denboraldirik onena? Bai, oraingoz bai.

Distantzia askotariko probetan aritzen zara. Non zabilta gusturago?

Normalean, 100, 200 eta 400 metroko probetan lehiatzen naiz, baina 400 metrokoa dut gustuko. Distantzia motzetan dena hain azkar pasatzen da, non ez baitu denborarik ematen lasterketa bera nola egin pentsatzeko. 400 metrokoan estrategia pixka bat erabili dezakezu.

Nolatan hasi zinen atletismoan? Betidanik izan duzu gustuko?

2021eko Anes Arrinda krolean konturatu nintzen korrika gustura nabilela. Gero, gurasoek kirol bat aukeratzera animatu nindutenean, atletismoa probatzea erabaki nuen, eta uste dut asmatu nuela.

Gustura al zabilta Eibarko Klub Deportiboko atletismo taldean? Zenbat urte daramatzazu bertan?

Oso gustura nabil eibartarren artean, talde ederra gara. 2021eko urrian hasi nintzen bertan.

Atletismoa kirol gogorra eta diziplina handikoa da; nolako da zure egunerokoa?

Aurten, astean bitan joan naiz Unbera entrenatzera. Klubak aukera zabala ematen du, egunero baititugu entrenamenduak, 17:00etan, eta hori ezinbestekoa

zait nire eskolaz kanpoko beste ekintzekin uztartu ahal izateko. Elikadurari dagokionez, ez dut ezer berezirik egiten, eta probak asteburuetan izaten dira. Azken finean, antolaketa ona izatea ezinbestekoa da guztiari aurre egiteko.

Zeintzuk dira, zure ustez, kirol horren alde on eta txarrak?

Alde onen artean, zalantzarik gabe, aniztasuna aipatuko nuke. Jende askok uste du atletismoa korrika egitea bakarrik dela, baina diziplina ugari biltzen ditu: altuera-jauzia, pisu-jaurtiketa, pertika, hesi-lasterketak... Nork bere lekua aurkitu dezake. Alde txar bat aipatzekotan, berriz, kirol indibiduala dela eta mentalki prest egon behar dela esango nuke. Nor bere buruaren kontra aritzen da; dena norberaren esku dagoenean, presioa oso handia izan daiteke. Hila-beteak edo urteak egon gaitezke marka hobetu gabe, nahiz eta gogor entrenatu, eta txapelketa askotatik *lehor* bueltatzea mentalki gogorra da.

Erreferenterik baduzu?

Bai, Elene Arrazola gure klubeko kidea dut erreferente nagusi. Askok ikasten da etxekoengandik.



Elene Beitia, pozarren zilarrezko dominarekin. NEREA BEDIAUNETA ALKORTA

Jakin badakigu dantzaria ere bazarela; Gure Kai dantza taldean, Kulunkan... ere bazabiltza. Bate-ragarria al da atletismoarekin?

Bai; arlo fisikoa asko indartzen dut biek: balletarekin, elastikotasuna, luzaketak eta oreka; eta euskal dantzarekin, baita indarra eta potentzia ere. Uste dut biak direla positiboak. Hori bai, sekretua ez dago hanketan, ordutegien *kuadrantean* baizik! **Datozen asteotan, udan, etenaldia egingo al duzu?**

Uztailean, bi astez Sierra Nevada joango naiz, atletismoko

campus batera, bertan entrena-tu eta inguruaz gozatzera. Ondoren, opor tartea izango dut, bai, irailean taldearekin berriz entrenatzen hasi arte.

Eta etorkizunean, zer asmo? Zeintzuk dira erronkak aurrera begira?

Asmo handirik gabe, entrenatzen jarraitzea eta markak pixkanaka hobetzen joatea da helburu bakarra, oraingoz. Azken finean, ni abiadura probetan lehiatzen naizen arren, atletismoa iraupen-lasterketa bat da; poliki-poliki, konstantziaz eta lan asko eginez egin beharreko bidea.

"Ni abiadura probetan lehiatzen naizen arren, atletismoa iraupen-lasterketa bat da"

"Kirol honen alde onen artean, zalantzarik gabe, aniztasuna aipatuko nuke"



Atleta gaztea, Deban. NEREA BEDIAUNETA ALKORTA

Espainiako Skate Park Txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu du Unax Lobok

Euskadiko Hiri Kirolen Txapelketa irabazi du debarrak, 12 urtez azpiko kategorian

Nerea Bedialauneta Alkorta DEBA

Duela gutxi Leioan jokaturako Euskadiko Hiri Kirolen Txapelketan nagusitu zen Unax Lobo skater debarra. 12 urtez azpiko kategorian lortutako emaitza hari esker, datorren azaroaren 20tik 22ra Alacanten -La Nucia- egingo den Espainiako Skate Park Txapelketan zuzenean parte hartzeko txartela bereganatu du.

Orain arte Ipar Surf eta Skate Eskolan trebatu den kirolariak maila handia erakutsi zuen lehian. Open formatuan jokatutako proban adin guztietako parte-hartzaileak aritu ziren, eta debarrak sailkapen nagusiko lehen hamarren artean amaitu zuen; bederatzigarren postuan, hain zuzen ere.

Azken saiakeran

Iker Lobok, Unaxen aitak, azaldu duenez, txapelketan "sekulako maila" izan zen, baina podiuma ez zen argitu azken unera arte. "Unaxek txapelketa ona egiteko esperantza zuen, eta, azkenean, hala suertatu zen. Egia esan, emaitza ona espero genuen, baina garaipena ezusteko handia eta pozgarria izan zen guretzat. Azken hilabeteotan sekulako lana egin du, eta garaipen hau horren guztiaren saria da", adierazi du.

Halaber, azaldu du Unaxek hainbat zailtasun izan zituela irabazteko: "Lehenengo aukeran kale egin zuen eta bigarrenengoan erori egin zen; baina azken txan-



Lobo, erdian, Euskadiko Hiri Kirolen Txapelketako podiumean. EHSB

pan, azken aukeran, etorri zen garaipena".

Erronka berriak

Alacanteko hitzordura begira, skater debarrak entrenatzeko era aldatu beharko du, nahitaez, txapelketako skate parkeak neurri eta ezaugarri oso ezberdinak baititu. "Hango parkea oso handia da eta altuera handia hartzen du. Halako tokietan entrenatzen hasi beharko du orain, baina, tamalez, ez daukagu halako parkerik bertan. Hurbilena Eibarren daukagu, baina hori ere txiki

geratzen zaigu askotan. Bestelakoan, Azpeitira, Zarautzera... joan behar izaten dugu", azaldu du aitak.

Prestakuntza berezi horretan, gainera, "maniobra arriskutsuak, ikusgarriak eta zailak" ikasi eta landu beharko dituela gaineratu du aitak, aurkariak gainditzeko eta epaileen arreta erakartzeko.

Bestalde, skater debarrak euskal selekzioaren deia jaso du. "Dei hori jasotzea sekulakoa izan da harentzat", zehaztu du aitak. Orain arte, erreserba aritu da, baina azken emaitzek debuta egiteko aukera ireki diezaioketela uste du Iker Lobok: "Selekzioaren hurrengo hitzordua uztailean izango da, autonomia erkidegoen arteko Espainiako Txapelketan; ea bertan debutatzeko aukera duen".

Debarrak sailkapen nagusiko lehen hamarren artean amaitu zuen: bederatzigarren

Guztia prest dago bihar ospatuko den lehen Zuhatza Trail Egunerako

Kirolaz gain, egun osoko egitarau zabala prestatu dute euskararen aldeko jai giroa sustatzeko

N.B.A.

Debako Euskaltzaleon Mugimenduaren ekimenez, lehen Zuhatza Trail mendi martxa eta lasterketa egingo dira bihar, ekainak 27. Kirola eta euskara uztartuko dituen hitzordu berezi horietan 300 parte-hartzaile biltzea espero dute.

Giroa berotzen hasteko, gaur banatuko dituzte dortsalak, udalaxe azpiko arkupeetan, 17:00etatik 20:00etara. Bihar ere izango da horretarako aukera, 07:00etatik 09:00etara. Kirol probei dagokienez, mendi martxa 08:00etan abiatuko da, Foruen plazatik, eta bi ordu geroago, 10:00etan, leku beretik aterako dira mendi lasterketako korrikalariak. Parte-hartzaileek 14 kilometroko ibilbide bera osatu beharko dute.

Kirolaz gain, egun osoko jai egitaraua prestatu dute euskararen aldeko jai giroa sustatzeko.

ko. Mendi lasterketa hasi ondoren, *Izan Tribu* haurrentzako jarduera izango da, Plaza Zaharrean. 13:00etan, bestalde, sari banaketa ekitaldia egingo dute, Foruen plazan, eta, ostean, *Baratzuri zopa* kantaldi herrikoiak zeharkatuko ditu kaleak. Indarrak berritzeko, herri bazkaria egingo dute, 15:00etan, Aldats pilotalekuan. Amaitzeko, 19:30ean, erromeria egongo da, Aldats pilotalekuan, Mugi Panderoa taldearen eskutik.

Argazkiak eta bideoa

Antolatzaileek ohartarazi dute euria egiten bada zenbait ekin-tza Aldats pilotalekuan egingo direla. Bestalde, biharko une gogoangarrienak argazki galeria batean eta bideo batean jasoko dituzte; astelehenetik aurrera egongo dira, ikusgai *barrena.eus* atarian.

Elaia Oiartzabal, Gipuzkoako Gomazko Paletako txapeldun

Elaia Oiartzabal Zinkunegik Gipuzkoako Gomazko Paletako Banakako Txapelketa bereganatu zuen joan den larunbatean, ekainaren 20an. Partida gogor eta parekatua jokatu ondoren, Iruleak Emakume Pilotariak klubeko palista debarrak 25-19 irabazi zion Hernani taldeko Maddi Iriondori.



Oiartzabal, garaikurrarekin. E.O.Z.

atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atandeba.com
www.atarideba.com

Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa
info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Janina & Mariam
Belleza

Itur kalea 2, Deba | 943 19 26 01 | DEBA

Barrena
DEBARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENA asteakarian
edo
www.barrena.eus
943 743 704
688 769 657

IXOTU *goi*

BIO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
AUTOMATIZAZIO, INSTALAZIO ETA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

BERGARA · 943 044 728

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAINITZA

Elgoibar. Sukaldaria behar dugu hanburgesak eta ogitarakoak egiteko, eta zerbitzaria ere bai, tabernarako. Esperientziaduna eta lanerako gogoia duena. 605 32 28 24

ESKAERAK

Elgoibar. Zerbitzari lanetan aritzeko prest nago. Esperientzia daukat. 652 33 31 06

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. Orduka, arratsaldeetan, gauean edo ospitalean lan egiteko prest nago. 641 69 23 66

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Astelehenerik larunbatera. Urteetako esperientzia daukat. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. 631 52 13 51

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka zein asteburuetan. Gauz lan egiteko ere prest nago, etxean edo ospitalean. 631 42 56 86

SALEROSKETAK

EROSI

Eibar. Helduentzako bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. 637 58 78 11

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN HARTU

Elgoibar. Etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. Epe luzerako. 602 30 40 08

ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06

Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!



DEBA

Lore

Zorionak zuri, laztana! Besarkada handiena, familia guztiaren partez. Maite zaitugu!



SORALUZE

Ibai

Zorionak, Ibai! Gure ume handi! Ondo-ondo pasatuko dugu zure eguna. Besarkada erraldoiak, denon partez.



ELGOIBAR

Nora

Zorionak, Nora, astelehenean amona Maria Luisak eta biok urteak bete zenituztelako. Muxuak, familia guztiaren partez, eta, bereziki, Nileren partez.



ELGOIBAR

Oihan

Zorionak, Oihan! 3 urte potolo jada! Beti bezain alai jarraitu. Muxu erraldoi bat, etxeko guztion partez.



ELGOIBAR

Gorka

Zorionak, Gorka, mutil handi, asteazkenean 12 urte bete zenituztelako. Muxu potolo bat, familiakoena eta, bereziki, Naroaren eta Juneren partez. Asko maite zaitugu.



ELGOIBAR

Sara

Zorionak, Sara, gaur 11 urte bete dituzulako! Ondo pasa zure eguna eta muxu handi bat, amaren eta Eriken partez.



SORALUZE

Lide eta Paule

Zorionak, Lide eta Paule! Ondo-ondo pasa zuen eguna, eta muxu handi bat, etxeko guztien partez.



SORALUZE

Iñaki eta Marian

Zorionak, bikote! Ekainaren 25ean, 44 urte Loiolako ezkontza mundial hartatik! Zenbat bizipen, abentura eta barre egin ditugun elkarrekin. Eskerrik asko. Asko maite zaituztegu! Etxekoek partez.

Zorion-agurra jartzeko bideak

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali Whatsappez 688 65 56 58 zorbakira edo e-postaz zorionagurra@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
- Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik

Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10 euro. Argazkiarekin: +5 euro.



Zorion agurrek saria dute
Barrena-n!

Argitaratzen diren zorion agurren artean

Galle-Tiak Fabrik-eko produktu pertsonalizatuak zozkatuko dira astero!

Aste honetako irabazlea: **OIHAN BELAUSTEGUI ALVAREZ**

Joan den asteko irabazlea!



ELGOIBAR

Alicia Sanz Muñoz



2026ko ekainaren 19an hil zen, 91 urte zituela.

*Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.*

Familiakoak

SORALUZE

Martxeli Armendi Etxaniz

2026ko ekainaren 22an hil zen, 91 urte zituela.

Gure bihotzetan biziko zara beti!

Etxekoak



Barrena eskelak: zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304

ETXE BERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 74 13 27 (24 orduz)
635 75 62 95 - 629 63 52 03



Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Norbanakoei eta konpainiei
zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentroetan zerbitzuak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 26

- **ERMUA Erakusketa: 'Emakume zientzialariak itzalean'** Erakusketan panel elebidunak daude ikusgai, zientziaren arloan ikertzaile handiak izan diren eta diren emakumeen biografiak jasotzen dituztenak. Erakusketa doan da eta Izarra Centren zabalik dagoen ordutegian bisitatu daiteke, 08:00etatik 22:00etara, uztailaren 15era arte.
- **DEBA Ongizatearen Plaza** Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez. 10:00etan, *Elikadura jasangarria eta osasuntsua*, Jakoba Errekondo adituarekin solasaldia. Harekin batera arituko dira tokiko ondoko ekoizleak: Doniense baserriko Miriam

eta Nerea Arrizabalaga eta Beliosoro baserriko Juan Mari Etxabe. 11:30ean, *Nahi ez den bakardadea* saioa. 17:30ean, barreterapia tailerra, Idoia Torregarai umoristaren eskutik. 18:30ean, amaiera eta txakolin dastaketa. Telmo Iruretagoiena sommelierak Getariako Txakolinaren inguruko azalpen-saioa egingo du. Ondoren, dastaketa egingo dute, Kalean Kantuz taldeak girotuta.

- **ERMUA 'Gu ere bagara!'** Ines Bermejo artistak eta Julen Nafarrate kazetariak bultzatutako sormen-lana da. Proiektu horren helburua Getxoko LGTBIQ+ nagusien kontatu gabeko istorioak jasotzea da, eta, aldi berean, ezagutzeko zer-nolakoak diren euren errealtatea eta bizipenak.



DEBA Euskararen aldeko lehenbiziko Zuhatza Trail mendi martxa eta lasterketa

OSTIRALA 26: 17:00etatik 20:00etara, dortsal banaketa, udaletxe azpiko arkupeetan.

LARUNBATA 27: 07:00etatik 09:00etara, dortsal banaketa udaletxe azpiko arkupeetan. 08:00etan, mendi martxaren hasiera, Foruen plazatik. 10:00etan, mendi lasterketaren hasiera, Foruen plazatik. Ondoren, *Izan tribu*, HH4-HH5eko haurrentzako jarduerak, Plaza Zaharreen. 13:00etan, sari banaketa ekitaldia. Ondoren, *Baratzuri zopa* kantaldi herrikoia, kalez kale. 15:00etan, herri bazkaria, Aldats pilotalekuan. 19:30ean, Mugi panderoa erromeria, Aldats pilotalekuan.

Antolatzailea: Lagun Artea Emakumeen Topalekua, 18:00etan. Ekainaren 30era arte.

- **ERMUA Pintura erakusketa: 'Mugartea'** Astelehenetik ostiralera: 18:00etatik 20:00etara. Larunbat eta igandeetan: 12:00etatik 14:00etara. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan. Ekainaren 30era arte.
- **ELGOIBAR Nahaste Borraste** Kimetz Elkarteak antolatuta. Partaideek korrika, bizikletan eta zakua lepoan dutela lehiatu beharko dute. Kalegoen plazan, 19:00etan.
- **ITZIAR Frontenis txapelketa** Itziarko Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.
- **SORALUZE Euskal presoan eta iheslarien giza eskubideen aldeko elkarretaratzea** Plaza Berrixan, 19:30ean.
- **DEBA Euskal presoan eta iheslarien giza eskubideen aldeko**

mobilizazioa Foruen plazan, 19:30ean.

- **DEBA Kontzertua: Bikustik** Itxas Gain tabernan, 19:30ean.
 - **SORALUZE Pilota txapelketako finalurrekoak** San Andres auzoko frontoian, 20:00etan.
- LARUNBATA 27**
- **ELGOIBAR Azken zapatuko feria** Debemenek eta Udalak antolatuta. 09:00etatik 14:00etara, baserriko eta Artalde Artisanu Taldearen produktuen salmenta, Aita Agirre plazan. 11:00etan hasita, Urazandiko jaien elkarteak pintxoak prestatuko ditu, Aita Agirre plazan, Elgoibarko baserrietako eta harategietako produktuekin.
 - **ELGOIBAR Isiltasunaren eskola** Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxean, 10:00etan.
 - **ELGOIBAR Hiruko saskibalo txapelketa** Elgoibarko saskibalo taldeak

antolatuta. Lekuederren, 11:00etan.

- **MUTRIKU-DEBA XII. Flysch Beltza igeri-zeharkaldia** Parte-hartzaileek 3.000 metro inguruko ibilbidea egin beharko dute Debako Santiago hondartzan kokatutako helmugara iristeko. Irteera ordua 13:00etan izango da, Mutrikuko igerileku ondoko arrapalan.
- **SORALUZE Pilota txapelketaren urteurreneko bazkaria** Frontoi zaharreen, 15:00etan.
- **DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiara itsasontziz'** Iraupena: ordubate. Beharrezkoak: jantzi egokiak, eguraldiaren arabera. Irteera puntua: Anes Arrinda pasealekua – pantalana–, 16:30ean.
- **ELGOIBAR LGTBIQ+ Harrotasunaren Eguna** 18:00etan, pankartak egiteko elkartuko dira, gaztetxean. 19:30ean, kuirropoteoa, Kultur Etxetik. 21:30ean, pikoteo kuirra, gaztetxean. Ondoren, jolasak, musika eta karaokea. Gaztetxean atrezzoak eskuragarri.
- **ERMUA Elektrojaia** Bi gunetan ospatuko da: Martxoaren 8a plazan 18:00etatik 23:00etara eta Betiondoko aparkalekuan

17:00etatik 04:00etara. Bertan parte hartuko duten musikariak: Dave Clarke, Truncate B2B Puschmann, Koldo Intermusic, Nova, Iñigo Diaz, Nina Casth, Javier Ganuza, Blanco, Pirata, Nei, Markos, ASH, DJ Bixent, Anuxx eta Atxe.

- **DEBA Kontzertua: Peppermint Sextet** Ondargain tabernan, 20:00etan.

DOMEKA 28

- **ELGOIBAR LGTBIQ+ elkarretaratzea** Arrain Zopa Elgoibarko talde transfeministak deituta, LGTBIQ+ kolektiboaren aldeko elkarretaratzea egingo dute. Maalako parkean, 13:00etan.
- **DEBA San Pedro bezperako ospakizuna** 21:00etan, Kalez Kale txistulariak, kalean zehar. 22:00etan, zahagi-erretzea, Plaza Zaharreen, La Lubina elkartearen laguntzarekin eta musika eskolako dantzarien parte-hartzearekin.

ASTELEHENA 29

- **MENDARO Frontenis txapelketako lehenengo faseko partidak** Gazte Asanbladak antolatuta.



ERMUA San Pelayo auzoko jaiak

OSTIRALA 26: Jaien hasiera kalejiran –Rincon tabernatik–. 19:00etan, Los Galaicos. 22:30ean, kontzertua, San Pelayo plazan: Norbac.

LARUNBATA 27: Puzgarriak, Tribuna tabernako plazan; apar festa, San Pelayo plazan; 18:30ean, meza, kaperan; 20:30ean, afaria, Niala magoaren animazioarekin, San Pelayo plazan; 23:00etan, DJ Leo Events, San Pelayo plazan.

IGANDEA 28: Puzgarriak, Tribuna tabernako plazan; 11:30ean, inklusio jokoak, San Pelayo plazan; 12:30ean, batukada, kalejiran; 13:00etan, sardina-jan herrikoia, San Pelayo plazan; 19:00etan, kontzertua, San Pelayo plazan: *YourversionBilbao*.



SORALUZE Bigarren eskuko elkartasun azoka

LARUNBATA 27: Bildutako dirua Palestinara bideratuko da. Plaza Berrixan, 10:00etatik 14:00etara.



ELGOIBAR Idortorbeko jaiak

LARUNBATA 27: 12:00etan jaien hasiera. Txapliguak eta kanpai jotzea. 17:00etan XIV. mus txapelketa. Izen-ematea: 25 euro bikoteko. 19:00etan Triki mendi-buelta, musika eta umore onarekin. 20:30ean lagunarteko afaria San Pedro Elkartearen. 22:00etan Erromeria Xafi Fest DJ-arekin goizaldera arte.

IGANDEA 28: 11:30ean Haritz Euskal Dantzari Taldeak eskainitako aureskua eta soka-dantza auzotarrekin. 12:00etan Maite Gourmetek eskainitako luntxa. 13:00etan bolo txapelketa. 14:30ean lagunarteko bazkaria San Pedro Elkartearen. 16:00etan Zirku tailerra: haur txikien txokoa, malabareak eta orekak. 17:30ean umeentzako jolasak. Egun guztian zehar Unai Andonegi eta Balzola trikitilariak arituko dira. Oharra: Egunaren bukaeran errifan zozketa egingo da.

ASTELEHENA 29: 10:00etan prozesioa eta meza nagusia. Ondoren, salda eta txorizoa, Armueta harategiak eskainia. 12:00etan Elgoibarko Lagunak pilota elkarteak antolatutako pilota partida.

Frontoian, 18:00etatik aurrera.

- ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.

ASTEARTEA 30

- ELGOIBAR 'Desira' sexu-aholkularitza zerbitzua** Sexu-aholkularitza zerbitzua, Lilan. Banakako saioak, bikoteko saioak edo talde txikian. Doan. Aldez aurretik hitzordua eskatu behar da: desiraelgoibar@gmail.com. Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, 16:00etan.
- ELGOIBAR Literatura sorkuntza tailerra** Haizeak antolatuta, literatura sorkuntza tailerra egingo dute Jasone Osororekin. Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, 18:00etan.

- MENDARO Frontenis txapelketako lehenengo faseko partidak** Gazte Asanbladak antolatuta. Frontoian, 18:00etatik aurrera.
- ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.
- ELGOIBAR Urazandiko auzotarrekin bilera** Errezabalgo obraren inguruan. Aita Agirreko areto nagusian, 19:30ean.

ASTEAZKENA 1

- ITZIAR Odol ematea** Aurrez txanda eskatzea komeni da. Interesa dutenek 634 07 34 98 telefono zenbakira deitu edo idatzi behar dute. Burugorri gainean, 16:30ean.
- MENDARO Frontenis txapelketako finalerdiak** Gazte Asanbladak

antolatuta. Frontoian, 18:00etatik aurrera.

- DEBA Marea Gora hitzaldi zikloa: 'Brujas y brujerías, todo mentira'** Toti Martínez de Lezea Kultur Elkartearen, 19:00etan.
- MENDARO Santanetarako helduen danborradarako entseguak** Uztailaren 1ean, 6an, 8an, 13an eta 15ean egingo dituzte. Frontoian, 21:00etan.

OSTEGUNA 2

- MENDARO Frontenis txapelketako finalerdiak** Gazte Asanbladak antolatuta. Frontoian, 18:00etatik aurrera.
- ELGOIBAR Kale antzerkia: 'Welcome and sorry'** Kalegoen plazan, 19:00etan.

OSTIRALA 3

- DEBA Mendi irteera bateratua: Pirinioak** Hiru eguneko mendi irteera bateratua antolatu dute Debako Burdin Kurutz Mendi Taldeak, Mutriku Burumendi Mendizale Elkarteak, Ondarroako Aurrera Mendi Taldeak eta Markina-Xemeingo Artibai Mendigoizale Taldeak. Uztailaren 3an irteera, Debatik, 17:30ean, autobus geralekutik. Uztailaren 4an, Juan



MENDARO Iago magoaren ikuskizuna

ASTEARTEA 30: Gazte Asanbladak antolatutako udako programaren baitan, magia ikuskizuna eskainiko du Iago magoak. Mendarozabalen, 19:00etan.

Pito-Lakora-Belagua aterpea -18 kilometro eta 1.240 metroko desnibel positiboa-. Uztailaren 5ean, Izaba-Peñablanca (Kakueta)-Izaba -12,65 kilometro eta 865 metroko desnibel positiboa-.

- MENDARO Alternative-Forest tekno-festa** Bi egunetan naturaren erdian ospatuko den jaialdi horrek house, elektro eta tekno musika uztartuko ditu. Parte-hartzaileak: Nicolas Lutz, Ivan Smagghe, SONS, Javier Carballo, Kinetic, Ildec, Arista, Borja S, Koldo Intermusic eta Hugo Sarrerak bi egunetarako: 60 euro -ostirala 30 euro eta larunbata 35 euro-. Ospas Gainan, 18:00etan.
- ITZIAR Frontenis txapelketa** Gaztelekuak antolatuta. Zabalsoro frontoian, 19:00etan.
- DEBA Iturri ondoan: Arineketan ('Zaharrak berri')** Euskal kanta eta dantza zaharrak itxuraldatzen ditu Arineketan taldeak. Hitzekin jolastuz, umorez eta dibertsioz, gure ondarearen gaurkotze bat egiten du, dantza, bertsolaritza eta musika uztartuz. Plaza Zaharreen, 22:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- 26 BARIKUA Barrenetxea / H. Burgoa / I. Ugarte
- 27 ZAPATUA Soto / *Yudego / H. Burgoa / A.M. Baz / *I. Ugarte
- 28 DOMEKA Soto / H. Burgoa / A.M. Baz
- 29 ASTELEHENA Garitaonandia / Lasuen-Elezgaray / M. Alves
- 30 MARTITZENA Arriola / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri
- 1 EGUAZTENA Fernandez / Lasuen-Elezgaray / A.M. Baz
- 2 EGUENA Yudego / Lasuen-Elezgaray / I. Ugarte
- 3 BARIKUA Oruesagasti / L. Apraiz / A. Alcalá

*09:00-13:30 / *09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

- Deba:** 09:00-13:45 / 16:30-19:30
- Elgoibar-Mendaro-Soraluze:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00
- Ermua-Mallabia:** 09:00-13:30 / 16:30-20:00
- Mutriku:** 09:00-13:30 / 16:45-20:00
- Itziarko botikina:** 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

- Egunez:** 09:00-22:00
- Gauetz:** 22:00-09:00
- Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
- Larunbatak:** Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
- Deba-Mutriku: 09:30-13:00
- Ermua-Mallabia: 09:00-13:30

Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

- DEBA A. ZALDUEGI:** Lersundi, 20 - 669 26 22 01
- DEBA H. BURGOA:** Astillero, 2 - 667 33 88 90
- ELGOIBAR ARRIOLA:** Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
- ELGOIBAR BARRENETXEA:** Errosario, 26 - 943 74 12 77
- ELGOIBAR GARITAONANDIA:** Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
- ELGOIBAR YUDEGO:** San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
- ERMUA A.M. BAZ:** Zearkale 2 - 943 03 17 03
- ERMUA M. ALVES:** Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
- ERMUA A. ALCALA:** Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
- ERMUA I. LECUMBERRI:** Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
- ERMUA M.I. UGARTE:** Goienkale, 11 - 943 17 05 26
- MALLABIA E. ARRONATEGI:** Mallazpi z/g - 943 17 24 14
- MENDARO FERNANDEZ:** Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
- MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY:** Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
- MUTRIKU L. APRAIZ:** Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
- SORALUZE SOTO:** Rekalde, 1 - 943 75 16 38
- SORALUZE ORUESAGASTI:** Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

DEBA

KULTUR ELKARTEA
'Ciudad sin sueño'
Igandea, 28: 19:00

ELGOIBAR

KALEGOEN PLAZA
'La tarta del presidente'
Ostirala, 3: 22:30
(Aire libreko zinema)

MENDARO

SAN AGUSTIN ARETOA
'Avenida Beira-Mar'
Igandea, 28: 18:00

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA
'Todo lo que nunca fuimos'
Larunbata, 27: 17:00, 19:45, 22:30.
Igandea, 28: 17:00, 20:00.
Astelehena, 29: 19:30.

'Toy Story 5'

Larunbata, 27: 17:00, 19:45, 22:30.
Igandea, 28: 17:00, 20:00.
Astelehena, 29: 19:30.
'Supergirl'
Larunbata, 27: 17:00, 19:45, 22:30.
Igandea, 28: 17:00, 20:00.
Astelehena, 29: 19:30.

SORALUZE

PLAZA ZAHARRA
'Faisaien irla'
Ostirala, 3: 22:30
(Aire libreko zinema)

ERMUA

SAN PELAIO PLAZA
'Cazafantasmas. Imperio helado'
Astelehena, 29: 21:00
(Aire libreko zinema)
'Space Jam. Aro berria'
(Euskaraz)
Asteazkena, 1: 21:00
(Aire libreko zinema)

AZKEN BERBA

Balearen memoria



AMATIÑO

Balea da euskal historian eraginik handienetakoa izan duen ugaztuna. Balearik gabe ez genuke traineru-estropadarik izango, ez Ternua jantzirik, ezta itsasaldeko sei udalerriren -Mutriku tarteko- armarrietan balearik azalduko ere.

Euskaldunok balearen atzetik joan ginen Ameriketaraino, arrantza-industria indarrean jarri eta Labradorreko inuitekin zein Ternuako algonkin-hiztunekin harremanak izan. Azken hauekin ondo konpondu ginen; inuitekin, oster, ez hain ondo, euskal baleazaleak neguan etxeratzen zirenean inuitok hutsik geratutako bordak eta tailerrak baliatzen baitzituzten, eta zeramikak, iltzeak nahiz burdinazko erremintak ostu.

Bostehun urte geroago, euskal erakundeak bertaraino joan dira, elkarren arteko harremanak estutzeko eta Pasaian egin den itsasontziaren bidaia prestatzeko, memoriari eutsi egin behar zaiolakoan.

Euskaldunok ez ezik, inuitek ere balearen memoria gorde dute. 1994ean joan nintzen Kanadara inuiten telebista ezagutzeko, eta nagusienak nongoa ote nintzen galdetu. "Basque", esan nion. Berak bekozko ilunez erantzun: "Basque? Balearik gabe utzi gintuztenetakoa?".

BUKATZEKO

"Parapentean gozatzeko egun asko daude urtean, eta gu hona lehiatzera gatoz"

Pirinioak airez zeharkatzeko X-Pyr lasterketan lehiatzen ari da losu Juaristi

Ainara Argoitia MENDARO

Igandean abiatu ziren Hondarribitik X-Pyr lasterketan parte hartzen ari diren ehun kirolariak -50 bikote-. Tartean dira lau euskal herritar: batetik, Mattin Iñiguez eta Nerea Beltran de Heredia, eta, bestetik, Aner Bueno parapentelari azpeitiarra eta haren abentura-lagun Iosu Juaristi elgoibartarra. Astebetean Pirinioak airez zeharkatzea dute helburu, Hondarribitik Gironako El Port de la Selvara (Katalunia) iristea -marra zuzenean 529 kilometro-. Bihar, ekainak 27, arratsaldeko seietan amaituko da lasterketa, iristen direnak iritsita. "Ondo bidean, helmugara arrimatzen hasiak egon beharko genuke zuek argitaratzen duzuenarako", esan zion BARRENARI abentura hasi aurretxoan Juaristik.

Zelan sartu zara abentura honetan? Parapentearen munduan Alpeetako Red Bull X Alps da munduko lasterketarik entzutetsuena, eta haren erudura sortutakoa da X-Pyr. Guretzat etxeko lasterketa da, Pirinioetan jokatzeko delako eta Alas de Leyreko Iñigo Redin lagunak antolatzen duelako. Erronka-zaleak garelako gaude hemen nahastuta, Anerrek proposatuta.

Zeintzuk dira lasterketaren ezaguri nagusiak?

07:00etan hasiko ditugu egunak eta 21:00ak arte izango dugu lehiatzeko. Behin 21:00ak jotakoan, pilotuak ezingo du dagoen lekutik 150 metro baino gehiago



Aner Bueno eta losu Juaristi. LAGATAKOA

aldendu. Bederatzi baliza daude bidean, eta haietatik pasatu behar da. Batzuk ukitu beharrekoak dira. 3.000 metrora hegan joan arren, horietako baten parera iritsitakoan derrigor jaitzi behar da pilotua, eta beste batzuk, berriz, hegan pasatu ditzake; esaterako, Aneto tontorrekoa. Guztira, lerro zuzenean, 529 kilometro dira, baina, jakina, lehenengo etapan bertan egin ditzakezu kilometro horiek guztiak, zerbait aldrebestuz gero.

Zein izango da zure egitekoa lasterketan?

Anerren aholkularia izango naiz. Topatu beharko dizkiot ibilbide egokiak; gomendatu egoera bakoitzean zer egin; erreparatu une oro baldintza meteorologikoei eta ohartarazi ohartarazi beharrekoak; informatu beharko dut aurretik doazenez darabilten estrategiek ere, eta lurra hartzen

duenean harengandik ahalik eta gertuen egoteko bidea topatu beharko dut, berritua aireratzeko unea iristen denean eskura izan dezan behar duen guztia. Parapentea, kaskoa, paraxuta eta aulkia dira hark derrigor eraman behar dituenak, baina, horrez gain, irratia, bateriak, mugikorra, arropak, janaria... ere hartu behar ditu, eta horiek guztiak eramateaz neu arduratuko naiz. Hegan egiteko baldintzarik ez dagoenean, oinez egin beharko du bidea Anerrek, eta ni saiatuko naiz beti ondoan egoten, baina, jakina, lur hartzen duen leku guztietaraino ezingo naiz iritsi. Eta halakoetarako behar duen dena eskura izateko modua asmatzea dagokit niri. Hala ere, nik ere izango ditut laguntzaileak. Mikel Luengo izango dut autokarabanako gidari, eta hura arduratuko da

otorduak prestatzeaz. Enaitz Izagirre pilotua ere etorriko da, haize handiko egunetan aireratzeko estrategiek eta abarrekin laguntzeko, eta Maite Maiora ere bai, autoz iristen ez garen lekuetara ura eta behar duena azkar baten eramateko.

Zeintzuk dira zuen dohainak?

Konfiantza handia dugu elkarren artean, eta hori derrigorra da halako proba batean. Esango nuke osagarriak garelako: oso pilotu abila, ausarta eta segurua da hura, eta ni ondo moldatzen naiz gailu teknologikoekin eta abarrekin. Bestetik, urteak daramatzat iraupen luzeko probetan dabilen eliteko kirolari baten ondoan -bi aldiz munduko txapeldun izan den Maite Maiora mendiko korrikalariaren bikotekidea da-, eta asko ikasi dut harekin psikologia kontuez. Ohituta nago leher eginda dauden kirolarien ondoan egoten, horrek esan nahi duen guztia erekin. Jakin egin behar da nekeak akituta eta etsita daukan kirolaria motibatzen, jarraitzeko arrazoiak ematen, eta jakin egin behar da motibatuegi dabilen bat geldiarazten ere, sasoiako sentitu arren kirolariak denbora hartu behar baitu ondo elikatze eta atsedean hartzeko. Esango nuke ezagunak izango zaizkidala jarriko dizkidan aitzakia guztiak eta jakingo dudala momentuan behar duen babes hori ematen.

Zer helburu daukazue?

Betikoa: gozatzea eta minik ez hartzea. Hala ere, Anerri ere esan diot: parapentean gozatzeko egun asko daude urtean, baina gu hona lehiatzera gatoz. Ahal den azkarren Port de la Selvara iritsi eta Mediterraneoan bainua hartzea da helburua. Pilotu oso trebeak daude, baina guk gure onena emango dugu.



Batu zaituz Tokikom Ligako Barrena taldera eta parte hartu asteroko zozketan!




6. asteko saritua: **Alaitz Albizu** (Deba)

Saria: Asier K umoregileak Debako Kultur Elkartearen eskainiko duen bakarrizketa saiorako bi sarrera